

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

3/2025 Foru Araua, apirilaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemako zerga batzuk eta zergen arloko beste foru arau batzuk berrikusteko

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2025eko apirilaren 9ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "3/2025 Foru Araua, apirilaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemako zerga batzuk eta zergen arloko beste foru arau batzuk berrikusteko", aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

3/2025 FORU ARAUA, APIRILAREN 9KOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA SISTEMAKO ZERGA BATZUK ETA ZERGEN ARLOKO BESTE FORU ARAU BATZUK BERRIKUSTEKO

ZIOEN ADIERAZPENA

Foru arau honek sei titulu dauzka, hemezortzi artikulua guztira, xedapen iragankor bi, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

I. tituluaren familia, berdintasuna, kontziliazioa, emakumea eta gazteria lantzen dira. Zerga sistemaren barruan, ardatz nagusiak pertsona eta beraren beharrak dira, arreta berezia jarrita 36 urtetik beherakoengan, familia ugarietan, guraso bakarreko familietan, desgaitasuna eta mendekotasuna dauzkaten pertsonengan eta etxeko indarkeria edo genero indarkeria jasaten duten pertsonengan, ekitatearen, gehikortasunaren eta birbanaketa funtzioaren printzipioak indartzeko, batez ere pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen.

II. titulua etxebizitzari buruzkoa da. Bertan, teknika fiskalez baliatuz, etxebizitza duinerako eskubidea gauzatzen laguntzeko neurriak berrikusten dira eta neurri berriak ezartzen dira, norberaren bizitzako aukerak errespetatuz eta errentako etxebizitzaren araubidea indartzeko.

III. titulua fiskalitate berdeari buruzkoa da. Bertan ezartzen denaren helburua da klima aldatetari, ekonomia zirkularrari, mugikortasun iraunkorrari eta trantsizio energetikoari lotutako ingurumen erronkei aurre egiten laguntzea da.

IV. tituluaren gaia gizarte aurreikuspena da. Bertan, fiskalitatea baliatuz, bigarren zutabea apurka-apurka pentsio publikoen osagarri gisa finkatzea bultzatzen da, eta enplegatuen eta enplegatzaileen erantzunkidetasuna sustatzen da.

Beste alde batetik, V. tituluaren gehikortasuna eta ekoizpen sarea bultzatzea lantzen dira. Hain zuzen ere, zenbait zerga eta kooperatiben zerga araubidea aldatzen dira, eta aldaketen elementu nagusiak honako hauek dira: batetik, ahalmen ekonomikoaren arabera finkatuko da zerga kargaren muga; bestetik, arreta berezia emango zaie enpresa eragile txikiei.

Azkenik, VI. tituluko zerga neurriek zergei buruzko foru arau orokorrari, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari eragiten diete.

I. TITULUA FAMILIA, BERDINTASUNA, KONTZILIAZIOA, EMAKUMEA ETA GAZTERIA

1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Aldaketa hauek egiten dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 16. artikuluari f) letra gehitzen zaio; hona:

“f) Langileei telelaneko modalitatean aritzeak eragindako gastuen konpentsazio gisa ematen zaizkien diru kopuruak, hitzarmen kolektiboan ezarritako zenbatekoa gainditzen ez dutenak izan ezik, gastu horien merkatuko balioa gehienez.”

Bi. 25. artikulua 5. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“5. Jarduera ekonomiko berri bati ekiten dioten zergadunek jarduera horren etekin garbi positiboa murriztu ahal izango dute, gizonak ehuneko 10 eta emakumeek ehuneko 15, behar denean aurreko apartatua xedatzen dena aplikatu ondoren. Murrizketa hau jardueraren etekin garbia positiboa den lehen zergaldian eta hurrengoan aplikatu ahal izango da, baldin eta etekin garbi positiboa lortzen den lehen zergaldia jarduera hasi ondoko lehen bost zergaldietako bat bada.

Hori dela eta, zergaduna aurretik jardun ekonomiko berean aritu bada, zuzenean zein zeharka, ez da ulertuko jarduera ekonomiko berriari ekin dionik. Lehengo jarduera eta oraingoa jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifan talde berean badaude, zergaduna jarduera berean ari dela ulertuko da.

Zergaldian ekindako jarduera ekonomikoak sortutako sarreraren ehuneko 50 baino gehiago aurreko urtean zergadunari lanaren etekinak ordaindu dizkion pertsona edo entitate batetik etorri badira, murrizketa hau ezin izango da aplikatu.”

Hiru.73. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“73. artikulua. Murrizketa zerga batera ordaintzeagatik

Foru arau honen 97. artikuluan xedatzen denaren arabera baterako tributazioa hautatuz gero, 4.800,00 euroko murrizketa egin daiteke urteko autolikidazioko zerga oinarri orokorrean.”

Lau. 80. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“80. artikulua. Kenkaria ondorengoaren mantenerako urtekoak ordaintzeagatik

Epailen erabakiz bigarren mailara arteko ondorengoaren mantenerako urtekoak modu eskusiboan ordaintzen dituzten zergadunek kontzeptu horregatik ordaindutako kopuruen ehuneko 15 kentzeko eskubidea edukiko dute, muga honekin: aurreko artikulua 1. apartatua ondorengo bakoitzeko ezartzen den kenkariaren zenbatekoaren ehuneko 30 ondorengo bakoitzeko.”

Bost. 81 ter artikulua gehitzen da; hona hemen edukia:

“81 ter artikulua. Kenkaria adingabeak eta mendekotasun edo desgaitasun maila jakin bat duten pertsonak zaintzeagatik

1. Zergadunek Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berzian afiliatutako pertsona bati mugagabeko kontratua egiten badio pertsona jakin bat zaintzeko, kontratuagatik ordaindutako zenbatekoengatik 250,00 euroko kenkaria aplikatu ahal izango du zergaldi bakoitzeko.

Kenkari hau aplikatzeko eskubidea bi zergadunek edo gehiagok dutenean, haren zenbatekoa denen artean hainbanatuko da.

2. Kenkaria aplikatu ahal izateko, inguruabar hauetako bat gertatu behar da:

a) Zergaduna 12 urtetik beherako pertsona batekin edo gehiagorekin bizitzea, pertsona horiek zergadunaren ondorengo ahaideak, adoptatuak, etxean hartutakoak edo tutoretzapekoak izatea, eta foru arau honen 79. artikuluan arautzen den kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten baldintzak (bizikidetzari eta errentari buruzkoak) betetzea.

12 urtetik beherako pertsonaren zaintza gurasoen edo adoptatzaileen artean partekatuta badago epaile baten erabakiz, batarekin eta bestearekin txandaka bizi ahal izango da.

b) Zergadunarekin bigarren gradura bitarteko ondorengo ahaide bat edo gehiago bizitzea, baita adoptatuak, etxean hartutakoak, tutoretzapekoak edo bigarren gradura bitarteko lerro zuzenean dauden aurreko ahaideak ere (odol-ahaideak, ezkontza bidezkoak, izatezko bikotea eratzeak dakarren harremanaren bidezkoak zein adoptatuak), eta pertsona horiek ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasuna edukitzea edo mendekotasun gradu etako bat aitortuta edukitzea mendekotasun egoera baloratzeko baremoa onesten duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera (autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarri zuen baremo hori), eta foru arau honen 79. eta 81. artikuluetan, hurrenez hurren, ondorengo eta aurreko ahaideengatik aurrekustean diren kenkariak aplikatzeko eskubidea ematen duten baldintzak (bizikidetzari eta errentari buruzkoak) betetzea.

Ondorengoaren zaintza gurasoen edo adoptatzaileen artean partekatuta badago epaile baten erabakiz, batarekin eta bestearekin txandaka bizi ahal izango da.

c) Zergadunak edo haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak aurreko b) letran aipatutako mendekotasun edo desgaitasun graduren bat aitortuta edukitzea.

3. Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratazioagatik zenbatekoak ordaintzen dituzten zergadunetako bat alta emanda egotea Gizarte Segurantzaren familia-etxe bateko enplegatzaile gisa, eta zergadun horrek pertsona bat edo gehiago mugaegunik gabe kontratatzea eta haiengatik Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian kotizatzea kenkaria aplikatu nahi den zergaldian.

Horretarako, baldintza hau betetzat joko da kontratazioa etxean laguntza eta zaintza pertsonaleko zerbitzuak ematen dituzten enpresen bitartez formalizatzen denean.

Halaber, kontratazioa egiten den edo lan harremana amaitzen den zergaldian kontratuak 183 egun iraun behar du gutxienez.

b) Aurreko 1. apartatuan aipatzen diren zergadunek eta beren ezkontideek edo izatezko bikotekideek, 12 urtetik beherako pertsonarekin edo mendekotasuna edo desgaitasuna daukan pertsonarekin bizi direnek, jardueraren bat egitea beren zein besteren kontura, eta haiengatik lanaren edo jarduera ekonomikoaren etekinak jasotzea ekitaldian. Baldintza hau ez zaie eskatuko desgaitasun edo mendekotasun graduren bat onartuta badaukate eta horrek foru arau honen 82. artikuluan arautzen den kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen badie, ez eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko, Gizarte Segurantzaren araubide berezietako edo Estatuaren Klase Pasiboaren Araubideko pentsioa edo Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotza jarduten duten gizarte aurreikuspeneko mutualitateek beren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian sartuta ez dauden profesionalen aitortutako prestazioa (Gizarte Segurantzako egoera bereko pentsioari dagokiona) jasotzen badute ere.

4. Artikulu honen 2. apartatuaren b) eta c) letretan azaltzen diren kasuetan kenkaria ezin da bateratu foru arau honen 81 bis artikuluan arabera mendekotasun edo desgaitasun gradu jakina duten pertsonak zaintzeko laguntzaile pertsonalak kontratatzeagatik aplikatu daitekeen kenkariarekin, kontratua pertsona bera zaintzeko bada."

Sei. 82 bis artikulua gehitzen da; hona hemen edukia:

“82 bis artikulua. Zergadun alargunentzako kenkaria

1. Zergadun alargunek 200,00 euroko kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dute.

1. apartatu honetan xedatutakoa aplikatu ahal izateko, zergadunak 20.000,00 euroko edo gutxiagoko zerga-oinarria izan beharko du.

2. 20.000,00 eurotik gorako eta 30.000,00 eurotik beherako zerga-oinarria duten zergadun alargunek 200,00 euroko kenkaria aplikatuko dute, ken zerga-oinarria 20.000,00 euroan minoratetik eratorritako zenbatekoa 0,0200ez biderkatuta lortzen den emaitza.

3. Artikulu honen ondorioetarako, zerga-oinarritzat hartuko da foru arau honen 65. eta 66. artikuluetan jasotako zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria batzearen emaitza. Zerga-oinarri orokorrak saldo negatiboa eman duenean, zero zenbatuko da lehen aipatutako batukariaren ondorioetarako.

4. Ez dute kenkari hori aplikatzeko eskubiderik izango hildako ezkontidearen aurkako gene-ro-indarkeriako delituengatik epai irmo baten bidez kondenatuak izan diren zergadunek.

5. Kenkari hori bateraezina da foru arau honen 83. artikuluan ezarritako adinaren ziozko kenkariarekin.”

Sei bis. 83 bis artikulua gehitzen da; hona hemen edukia:

“83 bis artikulua. Kenkaria lan jarduna, enpresariala edo profesionala gelditzeagatik, uzteagatik edo murrizteagatik, adingabeak edo adoptatuak zaintzeko xedez

1. Lau urtetik beherako ondorengoak edo adoptatuak zaintzeko lan jarduna, enpresariala edo profesionala eteten edo uzten duten gizonek 200,00 eurora arteko kenkaria aplikatu ahal izango dute eten edo utzi den urte bakoitzeko, adingabeak jaio eta zaintzeagatik legez aitortu eta emandako baimen ordainduak amaitzen direnetik hasita, artikulu honetan aurreikusitako baldintzetan.

Kenkaria aplikatuko da, halaber, zergadunak bere lan-jarduerarekin jarraitzen duenean lanaldi murriztuko modalitate batean, aurreko paragrafoan zerrendatutako pertsonaren bat zaintzeagatik, baldin eta horrek berekin badakar gehienez ere bere lanpostuaren lanaldi osoari dagokion denboraren ehuneko 67an lan egitea, betiere bere lanaldi osoa ez bada legez ezarritako lanaldiaren ehuneko 50 baino txikiagoa. Kasu horietan, 1. paragrafoan arautzen den kenkaria lanaldiari aplikatzen zaion murrizketa ehunekoaren arabera hainbanatuko da.

Erditze edo adopzio anizkoitzen kasuan, kenkari hau ehuneko 50 handituko da.

Bi gizonek kenkari hau aplikatzeko eskubidea dutenean, haren zenbatekoa zati berdinetan banatuko da.

2. Kenkaria aplikatzeko, nahitaezkoa izango da umea jaio edo adopzioa formalizatu aurreko lehen 18 hiletan 9 hilabetez, gutxienez, Gizarte Segurantzaren alta emanda egon izana besteren zein norberaren konturako langile gisa, kooperatibako bazkide langile gisa edo funtzionario gisa.

3. Jarduera etetea edo uztea, edo lanaldi-murrizketa, urtearen zati batean bakarrik izan bada, zati horrek urte osoan hartzen duen egun kopuruarekiko proportzionala izango da kenkariaren zenbatekoa.

4. Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria aplikatzea bateraezina izango da 81 ter artikuluan aurreikusitako kenkaria aplikatzearekin zaintzen den adingabe berarentzat, bat datozen egun tartetean.

5. Artikulu honen ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira adingabeak babes-teko eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean arauzko baldintzak beteta formalizatutako tutoretzagatik, harrera iraunkorragatik edo adopzio helburuko zaintzagatik zergadunarekin lotuta dauden pertsonak.”

Zazpi. 83 ter artikulua gehitzen da; hona hemen edukia:

“83 ter artikulua. Kenkaria adingabeak zaindu ondoren berriro laneratzeagatik

1. Zergadun emakumezkoek beren lan jarduna, enpresariala edo profesionala eteten edo uzten badute ondorengo edo adoptatu adingabea zaintzeko eta ondoren lan merkatura itzultzen badira, lan merkatura bueltatzen diren ekitaldian 1.500,00 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute, adingabea jaio eta zaintzeagatik legez aitortu eta emandako baimen ordaindua amaitzen denetik berriro lanean hasi arte lan jarduna, enpresariala edo profesionala etenda edo utzita igarotako urte bakoitzeko.

Erditze edo adopzio anizkoitzen kasuan, kenkari hau ehuneko 50 handituko da.

2. Kenkari hau aplikatzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Umea jaio edo adopzioa formalizatu aurreko lehen 18 hiletan 9 hilabetez, gutxienez, Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea besteren zein norberaren konturako langile gisa, kooperatibako bazkide langile gisa edo funtzionario gisa.

b) Adingabea jaiotzeagatik eta zaintzeagatik legez aitortutako baimen ordaindua amaitu ondoko lehen 12 hiletan gutxienez ordaindutako jarduerarik ez egitea.

c) Lan merkatura itzultzea aurreko b) letran ezarritako 12 hilabeteko gutxienerako aldia amaitzen denetik kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen adingabeak hiru urte bete ondoko 12 hiletan.

Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu zerbitzu publiko bazuetan enplegu eta zerbitzu eskatzaile gisa izena emandako pertsonak ere lan merkatura itzuli direla ulertuko da, arauz ezarritako baldintzetan.

3. Aurreko apartatuaren b) letran ezartzen den baldintza betetzat joko da, halaber, zergadunak letra horretan aipatzen den aldian bere lan jarduerarekin jarraitu badu lanaldi murriztuaren modalitatean, baina gehienez ere lanpostuaren lanaldi osoari dagokion denboraren ehuneko 67an lan egiteko modalitate bati heldu badio aldi horretan.

Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertuko da zergaduna lan merkatura itzuli dela (aurreko apartatuaren c) letran arautzen den bezala), baldin eta zergadunaren lanaldia lanpostuari dagokion lanaldi osoaren ehuneko 85 bada gutxienez.

Kasu horietan, 1. apartatuan arautzen den kenkaria lanaldiari aplikatzen zaion murrizketa ehunekoaren arabera hainbanatuko da.

4. Jarduera urtearen zati batean bakarrik eten edo utzi bada, zati horrek urte osoan hartzen duen egun kopuruarekiko proportzionala izango da kenkariaren zenbatekoa.

Adingabearekin emakume bat baino gehiago bizi badira eta kenkaria aplikatzeko eskubidea denei badagokie, kenkaria erdibana aplikatuko da bakoitzaren autolikidazioan.

5. Zergaduna lan merkatura itzultzen den zergaldian kuota osoa nahikoa izan ez eta aplikatu gabe geratzen diren kenkariak hurrengo bost zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, eta ezingo dira bost urteko aldi horretatik kanpo egin geroko ekitaldietan aplikatzeko dauden kenkariei metatuz.

6. Artikulu honen ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira adingabeak babes-teko eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean arauzko baldintzak beteta formalizatutako tutoretzagatik, harrera iraunkorragatik edo adopzio helburuko zaintzagatik zergadunarekin lotuta dauden pertsonak.”

Zortzi. 90. artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoa eta 2. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“1. Zergadunek kenkaria aplikatu ahal izango dute dena delako zergaldian enpresa berrien eta sortu berrien akzioak edo partaidetzak harpidetzeko edo eskuratzeko ordaindutako kopuruengatik, gizonak ehuneko 25 eta emakumeek ehuneko 30, baldin eta enpresa mikroenpresa, enpresa txikia edo ertaina bada Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 13. artikuluan xedatzen denaren arabera, eta, betiere, hurrengo 4. apartatuan xedatzen dena betetzen bada. Kapitalera egindako aldi baterako ekarpenaz gain, parte hartzen duen entitatearen garapenerako egokiak diren enpresa edo lanbide ezagutzak eman ahal izango dira, zergadunaren eta entitatearen arteko inbertsio akordioan ezartzen denarekin bat etorritik.”

“2. Aurreko apartatuan ezartzen den kenkaria enpresa berritzaileen edo xede soziala zilarrezko ekonomiari zuzenean lotuta duten enpresen akzioak edo partaidetzak harpidetzeko edo eskuratzeko zergaldian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 35 izango da gizonentzat eta ehuneko 40 emakumeentzat, baldin eta akzioak edo partaidetzak mikroenpresa, enpresa txiki edo ertaintzat jotzen enpresa batenak badira Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauak 13. artikuluan xedatzen duenaren arabera, eta hurrengo 4. apartatuan xedatzen dena betetzen bada.”

Bederatzi. VII. tituluari IX. kapitulua gehitzen zaio; hona hemen edukia:

“IX. KAPITULUA

ZERGADUNEK KENKARI JAKIN BATZUK APLIKATZEKO ARAUBIDE BEREZIA

94 bis artikulua. Zergadunek kenkari jakin batzuk aplikatzeko araubide berezia

1. Zergadunek foru arau honen 86. artikuluan aipatzen diren kenkariak dagozkien zenbatekoak kendu ahal izango dituzte, hain zuzen ere haiek aplikatzeko eskubidea sortu den zergaldian kuota osoa nahikoa izan ez eta ezin izan badira kendu, betiere sortu diren zergaldirako ezarritako portzentajeak, mugak eta gainerako beharkizunak errespetatuz.

Horrez gain, 36 urtetik beherako zergadunek foru arau honen 79. eta 87. artikuluetan aipatzen diren kenkariak dagozkien zenbatekoak kendu ahal izango dituzte, hain zuzen ere haiek aplikatzeko eskubidea sortu den zergaldian kuota osoa nahikoa izan ez eta ezin izan badira kendu, betiere sortu diren zergaldirako ezarritako portzentajeak, mugak eta gainerako beharkizunak errespetatuz.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren aplikatu gabeko kenkariak jatorrizko zergaldiaren ondoko bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira kenkariaren zenbatekoa agortu arte. Gainera, kenkari horiek ezin izango dira gauzatu bost urteko aldi horretatik kanpo geroko zergaldietan aplikatzeko dauden kenkariak metatuz.

79. eta 87. artikuluen babesean sortutako kenkariaren kasuan, baldintza izango da, halaber, zergaren sortzapen-datan, eramandako kenkariak dagozkien kendu gabeko zenbatekoak aplikatuko diren aldiak, zergadunak 36 urte baino gutxiago izatea.

2. Aurreko 1. apartatuan xedatzen dena kuota oso nahikoa dagoen lehen zergaldian aplikatuko da.

Aurreko zergaldietan sortutako kenkariaren aplikazioa egikarrituko da aplikatzeko dauden kenkariaren geroratzea osorik edo partez gauzatu den zergaldian kontzeptu kengarri horiek sorrarazi dituzten kenkariaren aurretik.”

Hamar. 98. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“98. artikulua. Familia unitatea: modalitateak

1. Hauxe da familia unitatea:

A) Legez bananduta ez dauden ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak, eta honako hauek, egonez gero:

a) Adingabeko seme-alabak, gurasoen edo adoptatzaileen baimenarekin beren kontura bizi direnak izan ezik.

b) Adinez nagusiak diren seme-alabak, baldin eta, Kode Zibilaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, ordezkapen ahalmena daukan kuradoretza bati lotuta badaude, eta, betiere, hori gurasoek edo adoptatzaileek gauzatzen badute.

c) Harrera iraunkorragatik edo adopzio helburuko zaintzagatik zergadunarekin lotuta dauden adingabeak, lotura hori adingabeak babesteko eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean formalizatuta badago.

B) Guraso, adoptatzaile edo hartzaile bat eta aurreko A) letrako a), b) eta c) letretan aipatzen diren pertsonak.

C) Zergaduna eta aurreko A) letrako a), b) eta c) letretan aipatzen diren pertsonak, haien zaintza etxeko indarkeriagatik edo genero indarkeriagatik esleitu bazaio zergadunari (araudian ezartzen denaren arabera frogatu behar da). Horretarako, pertsona horien zaintza jasotzen dutenen mendekotasun ekonomikoa, hurrengo D) letran aipatzen dena, ez da kontuan hartuko.

D) Orobat, legezko banantze kasuetan, ezkontza bidezko loturarik edo izatezko bikoterik ez dagoenean eta berariazko ebazpen judiziala eman den kasuetan, familia unitatea osatuko dute gurasoak, adoptatzaileak edo hartzaileak eta, mendekotasun ekonomikoa harekin bakarrik edukita, aurreko A) letrako a), b) eta c) letretan aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek.

Kontrako frogarik ezean, pentsatuko da seme-alaben, adoptatuen edo etxean hartutakoen mantenu ekonomikoa bi gurasoek, adoptatzaileek edo hartzaileek ordaintzen dutela.

Ondorio horietarako, honako hauek ez dira hartuko guraso, adoptatzaile edo hartzaile baten mantenu ekonomiko eskusiboaren frogatzat: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena banakako modalitatean aurkeztea; pertsona horietako batek mantenu ekonomiko horretan ez duela parte hartzen dioen zinpeko adierazpena aurkeztea; pertsona horietako bati modu artifiziosuan esleitzea gastuak; haietako bati guraso ahala kentzea; haietako bat familia unitateko gainerako kideekin ez bizi; pertsonetako batek, konkurtso legeriaren arabera, zorrak edukitzea eta haiengatik mantenuan ezin lagundu izatea.

Erregelamendu bidez beste kasu batzuk ezarri ahal izango dira aurreko paragrafoan aurreikusitakoez gain.

Aurrekoa gorabehera, letra honetan aipatzen diren kasuetan agintari judizial eskudunak xedatzen duena hartuko da aintzat, eta aipatutako mantenu ekonomiko eskusiboa benetakoa eta eraginkorra dela frogatu behar da.

2. Pertsona bat ezin da izan bi familia unitatetako kidea aldi berean.

3. Familia unitatea nortzuek osatzen duten zehazteko urte bakoitzeko abenduaren 31n da goen egoera hartuko da kontuan.

Urtean zehar familia unitateko kideren bat hil bada, gainerako kideek zerga batera ordaintzea hautatu ahal izango dute. Hala bada, autolikidazioan hildakoaren errentak sartu behar dituzte, bai eta zendua dela eta foru arau honen VII. tituluaren II. eta IX. kapituluetan ezarritakoaren arabera aplika daitezkeen kenkari pertsonalak eta familiarrak ere; kenkariak ezin dira murriztu heriotza egunera arteko aldiaren proportzioan.”

Hamaika. 99. artikulua 2. apartatuari h) letra gehitzen zaio; hona hemen edukia:

“h) Foru arau honen 94 bis artikulua bigarren paragrafoan arautzen diren kasuetan, geroraturako kenkariak aplikatuko diren zergaldian baterako tributazioa egitea hautatzen bada eta kenkari horiek aplikatzeko eskubidea hainbat pertsonak badaukate eta horietako batzuk 36 urtetik beherakoak badira eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, 94 bis artikulua horren 1. apartatua 36 urtetik beherako zergadunentzat xedatzen dena aplikatuko da.

Geroko zergaldietara eraman daitezkeen kenkariak, foru arau honen 94 bis artikulua aurreikusitakoak, familia unitateko kide diren zergadunek zerga banaka ordaindu badute aurreko zergaldietan eta zergaldi horietan kenkariak sortu badituzte, baterako tributazioan aplikatu ahal izango dira sortu diren zergaldiko mugak, portzentajeak eta baldintza berak errespetatuz.

Gerora zerga banaka ordaintzen bada, foru arau honen 94 bis artikulua xedatzen denaren arabera aplika daitezkeen kenkariak horiek aplikatzeko eskubidea sortu duten zergadunek aplikatu ahal izango dituzte; horrelakoetan, aplikatu gabeko kenkarietarako hurrengo paragrafoan aipatzen den banaketa erregela aplikatu ahal izango da.

Foru arau honen 79., 86. eta 87. artikuluetan aipatzen diren kenkariak (36 urtetik beherako zergadunen kasuan) edo foru arau honen 86. artikulua aipatzen den kenkaria (foru arau honen 94 bis artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoan aipatzen diren gainerako zergadunen kasuan), zerga batera ordaindu den zergaldian sortu badira eta zergaldi horretan ezin izan badira aplikatu kuota osoa nahikoa izan ez delako, gero zergadun bakoitzak banaka egiten duen aitopenean berak sortu eta aplikatu ez duen kenkariaren zenbatekoa aplikatu ahal izango du. Familia unitateko kide bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazterik ez badago, kenkaria familia unitateko adin nagusiko kideen artean hainbanatuko da.”

Hamabi. 101. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Aurreko apartatua azaldutako kasuan, heriotza egunean amaituko da zergaldia eta orduan sortuko da zerga. Nolanahi ere, foru arau honen 98. artikulua 3. apartatua zerga batera ordaintzea hautatzen denerako xedatzen dena aplikatuko da, eta hala denean, zerga batera ordaintzea hautatu eta bidezko murrizketa aplikatzeko ez beste ezertarako, heriotza abenduaren 31n gertatu dela ulertuko da.”

Hamahiru. Hogeita zortzigarren xedapen iragankorraren azken paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Halaber, aurreko paragrafoan aipatzen den aldia, foru arau honen 98. artikulua 1. apartatuaren A) letraren b) letran xedatutakoaren ondorioetarako, familia unitateko kideak izango dira luzatutako edo birgaitutako guraso ahalaren mende dauden legez ezgaitutako seme-alaba adindunak.”

2. artikulua. Sozietateen Gaineko Zerga

Bat. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren V. titulua III. kapituluaren 66 quinquies artikulua sartzeko da (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak). Hona testua:

“66 quinquies artikulua. Kenkaria bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak ezartzeagatik

1. Zergadunek kenkari bat aplikatu ahal izango dute kuota likidoan langileen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurri berriak ezartzeagatik. Horretarako bete beharreko baldintzak hurrengo apartatuetan arautzen dira.

2. Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak honako hauek izango dira:

a) Ordutegiak malgutzeko neurriak.

b) Lanaldi jarraituaren modalitatean jarduteko aukera ezartzea lehenago langileak lanaldi zatituarekin ari diren lanpostuetarako.

- c) Telelanaren modalitatean jarduteko aukera ezartzea edo zabaltzea.
- d) Lanaldia murrizteko edo eszedentzia eskatzeko kasu berriak sortzea.
- e) Doako haurtzaindegi zerbitzua jartzea langileen eskura, zuzenean edo hirugarrenen bitartez.
- f) Enplegatuei bizilekuaren eta lantokiaren arteko joan-etorriak errazteko neurriak ezartzea.

3. Artikulu honetan aipatzen den kenkariaren zenbatekoa portzentaje hauen arabera izango da:

a) Zergadunaren kuota likidoaren ehuneko 5, aurreko apartatuaren a) - f) bitarteko letretan aipatzen diren neurrietako bat jasotzen duen kontziliazio plana ezartzen den ekitaldian, 2.500,00 euroko mugarekin.

b) Zergadunaren kuota likidoaren ehuneko 15, plantillaren gutxienez heren batek aurreko apartatuaren a) - f) bitarteko letretan aipatzen diren neurrietako bat, kontziliazio planean bildutakoa, aplikatzen duen lehen zergaldian, 7.500,00 euroko mugarekin.

Foru arau honen 13. artikuluan aipatzen diren mikroenpresek eta enpresa txikiak 5 puntu portzentual gehituko dizkiete apartatu honen a) eta b) letretan ezartzen diren portzentajei.

4. Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko ezartzen diren neurri berriak zergadunaren kontziliazio planean jasota egotea, aplikatzeko den lege esparruan ezartzen diren nahitaezko gutxienekoak gainditzea eta aplikatu ahal zaizkien langile guztientzat eskura egotea.

Aurreko paragrafoan xedatzen denaren ondorioetarako, zergadunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du. Hori nola egin erregelamenduz finkatuko da.

Erregelamendu bidez zehaztuko da zer baldintza eta beharkizun bete beharko diren kenkari hau aplikatzeko. Baldintzak eta beharkizunak entitatearen tipologiaren arabera izan litezke."

Bi. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren V. titulua-ren III. kapituluaren 66 artikulua sartzen da (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak). Hona testua:

"66 octies artikulua. Emakumeen eta 36 urtetik beherakoen enplegua sortzeagatiko kenkaria

1. Zergaldian zehar eta artikulu honetan aurreikusitako baldintzetan, kuota likidotik kendu ahal izango da hurrengo apartatuan ezarritako zenbatekoa lan-kontratu mugagabearekin kontratatutako emakume edo 36 urtetik beherako pertsona bakoitzeko.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den kenkaria urteko soldata gordinaren ehuneko 35 izango da, kontratatutako pertsona bakoitzeko, baina kenkariaren muga izango da kontratatzeko unean indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldatarena.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa eta aplikatzeko muga langileak egindako lanaldiaren arabera izango da, lanaldi osoari dagokiona kontuan hartuta.

3. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko, kontratazioaren unean, kenkarirako eskubidea sortzen duen pertsonaren soldata lanbidearteko gutxieneko soldataren ehuneko 10 gainditu beharko du gutxienez, eta, kontratua formalizatzen den zergaldia amaitu eta hurrengo 3 urteetan amaitzen den zergaldian, jasotzen duen soldata une horretan indarrean dagoen gutxieneko soldata profesionalaren ehuneko 70 gainditu beharko du gutxienez.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, aurreko paragrafoan adierazitako eskakizunak langileak egindako lanaldiaren arabera izango dira, lanaldi osoari dagokiona kontuan hartuta.

4. Artikulu honetan xedatutako kenkaria aplikatzeko ezinbestekoa da, batetik, kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran lan-kontratu mugagabea duten langileen kopurua ez dadila murriztu hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan, eta, bestetik, langile kopuru hori kenkaria sortu den zergaldiaren hasierakoa baino handiagoa izatea eta langile-kopuruaren hazkunde hori, gutxienez, kenkarirako eskubidea ematen duten kontratuen kopurua bestekoa izatea.

5. Lan-harremana eteten bada edo lanaldia murrizten bada (Langileen Estatutuko 47. artikulua aipatutako kasuak), eskakizunak betetzeko betebeharra geroratuko da, harik eta lan-harremanaren eteteak edo lanaldiaren murrizketak ondorioak sortzeari utzi arte.

Halaber, lan-kontratu mugagabea duten langile kopuruaren murrizketa ez da konputatuko, baldin eta enpresak langile kopuru bera kontratatzen badu lan-harreman bakoitza azkendu denetik bi hilabete pasatu baino lehen.

6. Ezarritako betekizunak betetzen ez badira, zergadunak ez-betetze hori gertatzen den zergaldiko autolikidazioan sartu beharko du kenkariaren ondoriozko kuota, bai eta horri guztiari dagozkion berandutze-interesak ere.

7. Kenkarirako eskubidea sortzen duen kontratua formalizatu den zergaldia bukatu osteko hiru urteetan hasten diren zergaldietan zergadunak lan-kontratu berria egiten baldin badu, kontratu horrek kenkarirako eskubidea sortzeko betekizunak betetzen baditu eta beharrezkoa baldin bada aurreko ekitaldi batean sortutako kenkaria aplikatzeko eskubidea finkatzeko, orduan lan-kontratu horrek ez du kenkarirako eskubiderik sortuko, kontsolidazio horretarako beharrezkoa den zatian. Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, batera tratatuko dira foru arau honen 66.1 artikuluko hirugarren paragrafoko eta artikulu honetako kenkarirako eskubidea sortu duten kontratuak.

8. Kenkari hori egiaztatzeko, foru arau honen 66. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan ezarritakoa aplikatuko da.”

II. TITULUA ETXEBIZITZA

3. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Aldaketa hauek egiten dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 30. artikulua 3. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. Hala ere, foru arau honen 32. artikulua 4. apartatuan aipatzen diren etekinak bi urtetik gorako aldiaren sortu badira eta aldizka edo noizean behin lortu ez badira, haien zenbatekoaren ehuneko 60 izango da etekin garbia; berriz, sorrera aldia bost urtetik gorakoa denean edo araudi bidez etekin horiek denboran era irregular nabarmenean lortuzat jotzen direnean, ehuneko 50 izango da etekin garbia.”

Bi. 32. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“32. artikulua. Gastu kengarriak eta hobaria

1. Kapital higiezinaren etekinak sortu badira Hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikulua arabera etxebizitza errentamendutzat hartzen diren kontratuen ondorioz, ehuneko 30eko hobaria aplikatuko da higiezin bakoitzagatik lortutako etekin osoen gainean. Hobaria ehuneko 35ekoa izango da etxebizitza foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo gunetako batean badago.

Kapital higiezinaren etekinak etxebizitza merkatu tentsionatuetan sortu badira Hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikulua arabera etxebizitza errentamendutzat hartzen diren kontratuen ondorioz, betiere alokairu-errenta erreferentzia-indizeekin bat datozen zenbatekoetara mugatzen denean, aurreko paragrafoan aipatzen den hobaria ehuneko 70ekoa izango da.

Aurreko paragrafoan aipatutakoa Hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikulua arabera etxebizitza-errentamenduzat hartzen diren kontratuetatik eratorritako kapital higiezinaren etekinei ere aplikatuko zaie, baldin eta etekin horien sorburu den hitzartutako errenta borondatez mugatu bada erreferentzia-indizeen edo bitartekaritza publikoko prezioen arabera.

Ondorio horietarako, zergadunak behar besteko froga aurkeztu beharko dio Zerga Administrazioari, hitzartutako errenta eta aurreko paragrafoan adierazitako indizeak edo prezioak bat datozela egiaztatzeko.

Gainera, aurreko hiru paragrafoetako kasuetan, honako gastu hauek baino ez dira izango kengarriak:

a) Etekinen iturri diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen korrituen zenbatekoa eta finantzaketako gainerako gastuak. Horretarako, ordaindutako zenbatekotik kendu egin beharko da zergadunak aipatutako gastuei aurre egiteko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, baldin eta salbuetsita badaude zerga honen arautegiaren arabera.

b) Apartatu honetan aipatzen den bezala, higiezin bat etxebizitza gisa errentatzeagatik zergadunak jaso behar dituen errentak (denak edo batzuk) ez ordaintzea estaltzen duten aseguruen primen zenbatekoa, muga honekin: 300,00 euro urtean.

Ondasun higiezin bakoitzeko hobariaren eta gastu kengarriaren baturak ezin du eragin etekin garbia negatiboa izatea.

2. Kapital higiezinaren etekinak Eusko Jaurlaritzaren programen ondorioz lortzen badira, horien esparrua izanik abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren bidez araututako «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa, «ASAP» Merkatu Libreko Etxebizitzen Alokairurako Bitartekaritza Programa (Eusko Jaurlaritzaren irailaren 17ko 144/2019 Dekretuaren bidez arautua), edo autonomia erkidegoan, foru lurraldean edo udaletan abian jarritako antzeko beste etxebizitza plan eta programa batzuk, etxebizitzak programa horietarako errentan eman edo lagatzeagatik higiezin bakoitzeko lortzen diren etekin osoen gainean ehuneko 70eko hobaria aplikatuko da.

Gainera, honako hauek (hauexek soilik) kengarriak izango dira: eteकिन iturri diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesak, eta finantzaketako gainerako gastuak. Horretarako, ordaindutako zenbatekotik kendu egin beharko da zergadunak aipatutako gastuei aurre egiteko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, baldin eta salbuetsita badaude zerga honen arautegiaren arabera.

Ondasun higiezin bakoitzeko hobariaren eta gastu kengarriaren baturak ezin du eragin etekin garbia negatiboa izatea.

3. Aurreko bi apartatuetan aipatzen ez diren etxebizitzekin kapital higiezinaren etekinak lortu badira, eta higiezin horietan jarduera ekonomikorik egiten ez bada, ehuneko 20ko hobaria aplikatuko da higiezin bakoitzarekin lortutako etekin osoen gainean.

Gainera, honako hauek (hauexek soilik) kengarriak izango dira: eteकिन iturri diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesak, eta finantzaketako gainerako gastuak. Horretarako, ordaindutako zenbatekotik kendu egin beharko da zergadunak aipatutako gastuei aurre egiteko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, baldin eta salbuetsita badaude zerga honen arautegiaren arabera.

Ondasun higiezin bakoitzeko hobariaren eta gastu kengarriaren baturak ezin du eragin etekin garbia negatiboa izatea.

4. Aurreko apartatueta aipatzen ez diren kapital higiezinaren etekinak lortu badira, etekin osotik kenduko da honako gastu kengarri hauen zenbatekoa:

a) Etekinak lortzeko egindako gastuak: etekinen iturri diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesak eta finantzaketako gainerako gastuak.

b) Etekinen iturri diren ondasunetan erabileragatik edo denboraren joanak eraginda gertatutako narriaduraren zenbatekoa, arauz ezartzen denarekin bat etorritik.

Erabilpenerako edo gozamenerako eskubideen titulartasunak sortzen dituen etekinen kasuan, ordaindutako eskuraketa balioaren zati proportzionala ken daiteke balio galeragatik, arauz ezartzen denarekin bat etorritik.

Ondasun higiezin bakoitzeko, gastu kengarrien baturak ezin du eragin etekin garbia negatiboa izatea.”

Hiru. 39. artikulua 2. apartatuaren hirugarren paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Apartatu honen lehenengo paragrafoan xedatzen dena gorabehera, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren etxebizitzaren azpierrementuen etekinak lortu badira, etekin garbia kalkulatzeko azpierrementzaileak errentamendu gisa ordaindutako zenbatekotik azpierrementan hartutako elementuari dagokion parte proportzionala soilik izango da kengarria, eta, gainera, ehuneko 30eko hobaria aplikatuko zaio azpierrementan emandako higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen eta gastu kengarri gisa konputatutako zenbatekoaren arteko diferentziari.”

Lau. 49. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“49. artikulua. Berrinbertsioa, ohiko etxebizitza eskualdatzen denean

1. Zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatuta lortutako ondare irabaziaz zergapetu gabe utzi ahal izango dira, baldin eta etxebizitza aldatzea justifikatzen duen zerbait gertatu bada eta eskualdaketa bidez lortutako zenbateko osoa ohiko etxebizitza berria erosteko berrinbertitu bada, erregelamenduz ezartzen den bezala.

Etxebizitza aldatzea justifikatuz joko da hauetako bat gertatuz gero: eskualdatutako etxebizitza ez izatea egokia zergadunaren edo harekin bizi direnen beharrezko familiarretarako; lantokia lekuz aldatzea edo lehen enplegua edo enplegu berria lortzea; ezkontzea edo izatezko bikotea eratzea, edo senar-emazteak banantzea edo izatezko bikotea desagitea; etxebizitza ordaintzea eragozten duten arazo ekonomikoak izatea; antzeko beste inguruabar batzuk.

Erregelamenduz beste inguruabar batzuk ezarri ahal izango dira aurreko paragrafoan aipatzen direnez gainera.

Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, zergadunak bi etxebizitzaren jabetza osoa eduki beharko du, eta hori horrela dela ulertuko da nahiz eta jabetza hori beste titularkide batzuekin partekatu.

2. Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketa jasotako zenbateko osoa baino gutxiago bada, berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare irabaziaren zati proportzionala soilik gertatuko da zergapetu gabe.

3. Aurreko apartatueta xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, eskualdaketa egin aurretik zergadunaren ohiko etxebizitza izan den familia etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare irabaziei, baldin eta zergadun horrek etxebizitza horretan bizitzeari utzi badio erabaki judizial baten ondorioz, ezkontideak banantzeko edo izatezko bikotea azkentzeko prozedura batean.

Apartatu honetan xedatzen dena aplikatzea edo ez baldintzapean dago: eskualdatzen den familia etxebizitza zergadunaren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen ohiko etxebizitza izan behar da.

Erregelamendu bidez baldintza gehiago ezarri ahal izango dira apartatu honetan xedatzen dena aplikatzeko.”

Bost. 63. artikulua a) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“a) Foru arau honen 32. artikulua 1. eta 2. apartatuaren aipatzen diren etxebizitzek sortzen dituzten kapital higiezinaren etekinak.”

Sei. VII. tituluaren IV. kapituluaren izenburua aldatzen da eta honela geratzen da:

“IV. KAPITULUA
ETXEBIZITZAREN KENKARIAK”

Zazpi. 86. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Aurreko 1. apartatua jasotakoa gorabehera, kenkari espezifiko hauek finkatzen dira:

a) Aurreko 1. apartatua arautzen den kenkaria ehuneko 35ekoa izango da (gehienez 2.800,00 euro urtean) honako kasu hauetan: zergaduna familia ugariaren titularra denean; zergaduna foru arau honen 98. artikulua B) edo C) letran aipatzen den familia unitateko kidea denean; zergaduna 36 urtetik beherakoa denean; zergadunak ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasuna aitortuta daukanean edo zergadunak edozein gradutako mendekotasuna aitortuta daukanean, mendekotasuna baloratzeko baremoa onesten duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritik (autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarri zuen baremo hori), edo zergaldi osoan haiekin bizi direnak, pertsona horien heriotza-kasuetan izan ezik; edo zergaduna etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren biktima denean (erregelamenduz ezarriko da nola frogatu behar den indarkeria hori).

b) Aurreko 1. apartatua arautzen den kenkaria ehuneko 35ekoa izango da (gehienez 2.800,00 euro urtean) honako kasu honetan: zergadunaren ohiko etxebizitza foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo herriguneetako batean dagoenean, alde batera utzita aurreko a) letran arautzen diren kasuetako bat edo batzuk aplikatu behar zaizkion.”

Zortzi. 86. artikulua 4. eta 5. apartatuak aldatzen dira eta 8. paragrafoa gehitzen zaio. Honela geratzen dira:

“4. Kapitulu honetan xedatzen denaren ondorioetarako, aurreko 2. apartatua aipatzen diren kasuak zehazteko, zerga sortzen den egunean dagoen egoera hartuko da kontuan; nolahi ere, artikulua honen 2. apartatua a) letran aipatzen den elkarbizitzaren baldintza bete beharko da.

Artikulu honen 2. apartatua b) letran xedatzen dena aplikatuko bada, ezinbestekoa da errentaria zergaldi osoan bizitzea foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren zona edo herriguneetako batean (salbuespena: zergaldian zehar hiltzen bada.)”

“5. Zerga batera ordaintzea hautatzen bada, kenkari honetarako eskubidea daukaten pertsonak bat baino gehiago badira eta horietako batzuk 36 urtetik beherakoak badira edo aurreko 2. apartatua a) letran ezartzen denaren arabera kenkari portzentaje handiagoa aplikatzeko eskubidea ematen duen egoeretako batean badaude eta beste batzuk ez, letra horretan ezartzen diren portzentajeak eta mugak aplikatuko dira.”

“8. Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatzeko, zergadunaren likidazio oinarri orokorra eta, kasua bada, aurrezkiaren likidazio oinarria 68.000,00 eurokoa edo hortik beherakoa izan behar da.”

Bederatzi. 87. artikulua 4. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“4. Zergadunak 36 urte baino gutxiago badauzka, espezialitate hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. apartatua ezarritako portzentajeak ehuneko 23koak izango dira.

b) Aurreko 2. apartatuan urterako ezarritako gehieneko kenkaria 1.955,00 eurokoa izango da. Hala ere, ohiko etxebizitzaren erosketa formalizatzen den zergaldian ezin izango da aplikatu urterako ezarritako gehieneko kenkaria.

Apartatu honen aurreko letretan xedatzen dena, b) letraren azken tartekia ez beste guztia, foru arau honen 86. artikulua 2. apartatuaren a) letran aipatzen diren zergadunek aplikatuko dute, artikulua honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

Zerga batera ordaintzea hautatzen bada, kenkari honetarako eskubidea daukaten pertsonak bat baino gehiago badira eta horietako batzuk 36 urtetik beherakoak badira edo apartatu honetan ezartzen denaren arabera kenkari portzentaje handiagoa aplikatzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentaje hori eta ezartzen diren mugak aplikatuko dira. Artikulu honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan ez da hori aplikatuko, pertsonetako bat 36 urtetik beherakoa izan ezean, orduan ere portzentaje handiagoa aplikatuko baita.”

Hamar. Oraingo 87. artikulua 4 bis apartatua 4 ter izango da; hona testua:

“4 ter.

1. Artikulu honen 5. apartatuaren c) letran ezartzen diren kasuetan, mendekotasuna larria (II. gradua) edo handia (III. gradua) bada, kenkaria honako berezitasun hauekin aplikatuko da:

a) Aurreko 1. atalean ezarritako portzentajeak ehuneko 23koak izango dira, salbu eta artikulua honen 5. atalaren b) letrak aipatzen dituen kasuetan.

b) Aurreko 2. atalean ezarritako urteko gehieneko kenkaria 1.995,00 eurokoa izango da, salbu eta artikulua honen 5. atalaren b) letrak aipatzen dituen kasuetan.

Zerga batera ordaintzea hautatzen bada eta hainbat pertsonak badaukate kenkari horretarako eskubidea, ehuneko 23ko kenkaria aplikatuko da eta muga 1.955,00 eurokoa izango da, artikulua honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

2. Baldin eta aurreko apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen dituen zergadun bati (artikulua honen 5. apartatuaren c) letrari dagokionez) artikulua honen 1. apartatuaren hirugarren paragrafoan xedatzen dena ere aplikatzea badagokio, 36 urtetik beherakoa bada edo kasu horietako bat baino gehiago aplikatu ahal bazaizkio, espezialitate hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. apartatuan ezarritako portzentajeak ehuneko 25koak izango dira. Artikulu honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan ez da hori aplikatuko, 36 urtetik beherakoa izan ezean, orduan ere portzentaje handiagoa aplikatuko baita.

b) Aurreko 2. apartatuaren bigarren paragrafoan urterako ezarritako gehieneko kenkaria 2.346,00 eurokoa izango da. Artikulu honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan ez da hori aplikatuko, 36 urtetik beherakoa izan ezean, orduan ere portzentaje handiagoa aplikatuko baita.

2. zenbaki honen aurreko letretan xedatzen dena 86. artikulua 2. apartatuaren a) letran aipatzen diren gainerako zergadunek ere aplikatuko dute, artikulua honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik (salbuespena: 36 urtetik beherakoa bada, orduan ere portzentaje handiagoa aplikatuko da).

Zerga batera ordaintzea hautatzen bada eta kenkari hau aurreko espezialitateekin aplikatzeko eskubidea daukan pertsona bat edo gehiago badago, kenkari portzentajea ehuneko 25 izango da eta muga 2.346,00 euro. Artikulu honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan ez da hori aplikatuko, pertsonetako bat 36 urtetik beherakoa izan ezean, orduan ere portzentaje handiagoa aplikatuko baita.”

Hamaika. 87. artikulua 4 bis apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“4 bis. Zergaduna 36 urtetik beherakoa bada eta aurreko 1. apartatuaren hirugarren paragrafoan xedatzen dena aplikatzen bada, espezialitate hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. apartatua ezarritako portzentajeak ehuneko 25koak izango dira.

b) Aurreko 2. apartatuaren bigarren apartatua urterako ezarritako gehieneko kenkaria 2.346,00 eurokoa izango da. Artikulu honen 4. apartatuaren b) letraren azken tartekian xedatzen denaren arabera aplikatuko da kenkari hau, ohiko etxebizitza erosten den zergaldian.

4 bis artikulua honen aurreko letretan xedatzen dena, artikulua honen 4. apartatuaren b) letraren azken tartekia ez beste guztia, 86. artikulua 2. apartatuaren a) letra aipatzen diren gainerako zergadunek ere aplikatuko dute, artikulua honen 5. apartatuaren b) letra aipatzen diren kasuetan izan ezik.

Zerga batera ordaintzea hautatzen bada, artikulua honen 1. apartatuaren hirugarren paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko eskubidea daukaten pertsonak bat baino gehiago badira eta horietako batzuk 36 urtetik beherakoak badira edo apartatu honetan ezartzen denaren arabera kenkari portzentaje handiagoa aplikatzeko eskubidea ematen duen kasuetako batean badaude eta beste batzuk ez, kenkaria ehuneko 25koa izango da eta muga 2.346 euro. Artikulu honen 5. apartatuaren b) letra aipatzen diren kasuetan ez da hori aplikatuko, pertsonetako bat 36 urtetik beherakoa izan ezean, orduan ere portzentaje handiagoa aplikatuko baita.”

Hamabi. 87. artikulua 5. apartatuaren b) letra eta 7. apartatua aldatzen dira, eta 10. apartatua gehitzen da; hona:

“b) Kreditu-entitateetan gordailutzen diren diru-kopuruak, arauzko eran ezartzen diren formalizazio era erabilera baldintzak betetzen dituzten kontuetan, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosteko edo birgaitzeko erabiltzen badira kontua ireki denetik 6 urte pasatu baino lehen.

Hala ere, baldin eta kontua ireki den urtean titularrak 36 urte baino gutxiago eduki baditu, aurreko paragrafoan ezartzen den epealdia 10 urtekoa izango da.

Gordailuturiko kopuruak baliatzeko betekizuna ez betetzat joko da, baldin eta kenkaria aplikatzeko eskubidea sortu duten kopuruak zerga sortu aurretik berriz jartzen badira edo kreditu entitate bereko edo beste bateko beste kontu batean oso-osorik jartzen badira.

Etxebizitza kontuaren zenbatekoa ohiko etxebizitza erosteko edo birgaitzeko erabiltzeko betekizuna ez da bete gabe geratu dela ulertuko zergaduna hiltzen bada letra honen lehen eta bigarren paragrafoetan aipatzen diren epealdiak amaitu baino lehen.

Letra honetan aipatzen diren kontuetan gordetako diru kopuruek kenkarirako eskubidea sortu badute, kopuru berek ezin izango dute berriro kenkaria sortu ohiko etxebizitza erosteko edo birgaitzeko erabiltzen direnean.”

“7. Erabaki judizial baten ondorioz ezarri bada familiaren etxebizitzagatik zergadunak aurreko 1. apartatua aipatzen diren diru kopuruetako bat ordaindu behar duela, zergadunak eskubidea edukiko du bere autolikidazioan artikulua honetan aipatzen den kenkaria aplikatzeko. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzak bidezko proportzioan aplikatuko du bere autolikidazioan, aurreko 1. eta 2. apartatuetan ezarritako ehunekoak eta mugak kontuan edukita. Salbuespena: artikulua honen 4. apartatua edo 4 bis apartatua xedatzen diren baldintzak betetzen badira, horietan adierazitako ehunekoak eta muga aplikatzeko eskubidea edukiko dute.”

“10. Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatzeko, zergadunaren likidazio oinarri orokorra eta, kasua bada, aurrezkiaren likidazio oinarria 68.000,00 eurokoa edo hortik beherakoa izan behar da.”

Hamahiru. VII. tituluaren IV. kapituluari 87 bis artikulua gehitzen zaio; hona testua:

“87 bis artikulua. Kenkaria birgaitze babestuagatik

Kapital higiezinaren etekin garbia foru arau honen 32. artikulua 1. eta 2. apartatueta xedatutakoaren arabera zehazten duten zergadunek errentan emandako etxebizitza birgaitzeko ordaindutako zenbatekoen ehuneko 18eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, muga honekin: 3.000,00 euro urtean.

Ondorio horietarako, etxebizitza birgaitzea izango da jabeak errentatutako etxebizitzan lanak egitea, baldin eta lan horiek babestutako jarduketak direla adierazi badu ebazpen batek, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera, edo, bestela, babesteko moduko jarduketak direla adierazi bada abenduaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuak edo berau ordeztzen duen pareko arau batek ezartzen duenarekin bat etorritz.

Era berean, birgaitzetzat hartuko dira paragrafo honen lehenengo paragrafoan aipatzen den errentatutako etxebizitzan egiten diren egokitzapen obrak eta instalazioak, bai eta hiri-finkaren eta bide publikoaren arteko beharrezko igarobide diren eraikineko elementu komunak aldatzekoak ere, hala nola eskailerak, igogailuak, korridoreak, atariak edo beste edozein elementu arkitektoniko, edo desgaituen edo mendekoen komunikazio sentsorialeko hesiak gainditzeko edo segurtasuna sustatzeko gailu elektronikoak aplikatzeko beharrezkoak direnak, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.”

Hamalau. 99. artikulua 2. apartatuaren e) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“e) 36.000,00 euroko kopurua, foru arau honen 87. artikulua 3. apartatuan aipatzen dena, zergadun bakoitzari banaka aplikatuko zaio. Hala ere, urtean aplika daitekeen gehieneko kenkaria, foru arau honen 87. artikulua 2., 4., 4 bis eta 4 ter apartatueta aipatzen dena, ezin da izan 1.530,00, 1.836,00, 1.955,00, 2.346,00, 1.955,00 edo 2.346,00 eurotik gorakoa, hurrenez hurren, familia unitateko kideen kopurua gorabehera. Salbuespena: familia unitateko kideek zerga batera ordaintzea hautatuz gero, foru arau honen 98. artikulua 1. apartatuaren A) letran arautzen den bezala, kenkariaren mugak horiek halako bi izango dira.

Halaber, foru arau honen 87. artikulua 4. apartatuaren b) letraren azken tartekia ohiko etxebizitza erosten den zergaldian 36 urte baino gutxiago dauzkaten zergadunei baino ez zaie aplikatuko.”

Hamabost. Hogeita hamargarren xedapen iragankorra gehitzen da; hona:

“Hogeita hamargarrena. Ohiko etxebizitza erosteko kontuetan gordailututako zenbatekoak gauzatzeko epealdia luzatzea, kontu hori ireki den zergaldian zergadunak 36 urte baino gutxiago daukanean.

Foru arau honen 87. artikulua 5. apartatuaren b) letraren lehen paragrafoan aipatzen den kontua ireki denean zergadunak 36 urte baino gutxiago eduki baditu eta 2024ko abenduaren 31n ez bada amaitu xedapen horretan ezartzen den 6 urteko epealdia, kontuan gordailututako zenbatekoak ohiko etxebizitza erosteko erabiltzeko epealdia luzatuko da eta 10 urtekoa izango da kontua ireki den egunetik aurrera.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontuetan sartutako zenbatekoak, horretan ezarritako terminoen arabera, Foru Arau honen 87. artikulua ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea emango dute.”

4. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 32. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak):

“2. Aurreko apartatuan aipatzen diren entitatearen sarreraren artean badaude etxebizitzetatik lortu diren kapital higiezinaren etekinak, Pertsona fiskoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 32. artikulua 1. eta 2. apartatueta aipatzen direnak, ondare sozietateek manu horietan xedatzen dena aplikatu ahal izango dute errenta horiei dagokienez.

Halaber, entitatearen sarreren artean badaude beste ondasun higiezin batzuk lagata edo haien gaineko erabilera eta gozamen eskubideak eratuta lortutako etekinak, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 32. artikulua 3. apartatua aipatzen direnak, kengarriztat jo ahal izango dira higiezin bakoitzetik ateratako sarrera osoen ehuneko 10, eta etekinak sortu dituzten ondasunak, eskubideak edo erabili eta gozatzeko ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen eta gainerako finantzaketa gastuen zenbatekoa. Ken daitezkeen bi zenbateko horien baturak ezin du, higiezin bakoitzeko, etekin garbi negatiboa sortu.

Entitatearen sarreren artean badaude beste ondasun higiezin batzuk lagata edo haien gaineko erabilera eta gozamen eskubideak eratuta lortutako etekinak, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 32. artikulua 4. apartatua aipatzen direnak, kengarriztat jo ahal izango dira higiezin bakoitzetik ateratako sarrera osoen ehuneko 30, eta etekinak sortu dituzten ondasunak, eskubideak edo erabili eta gozatzeko ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen eta gainerako finantzaketa gastuen zenbatekoa. Ken daitezkeen bi zenbateko horien baturak ezin du, higiezin bakoitzeko, etekin garbi negatiboa sortu.

Entitatearen sarreren artean Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 34. artikulua a) eta b) letretan aipatzen diren dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak badaude, ondare sozietateek foru arau horren 9. artikulua 24. apartatua xedatzen dena aplikatu ahal izango dute errenta horiei dagokienez.

Hala ere, ondare sozietateek Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 66. artikulua xedatzen duena aplikatu ahal izango dute.”

5. artikulua. Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren 9. artikulua f) letra gehitzen zaio (foru arau hau indarrean sartzen denetik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“f) 36 urtetik beherako zergadunen alde ezkontideak, izatezko bikotekideak, aurreko edo ondorengo ahaideek edo hirugarren gradura bitarteko alboko ahaideek (ahaidetasuna nolakoa den gorabehera: odol ahaideek, ezkontza bidezkoek, izatezko bikotearen, adopzioaren zein harrera iraunkorraren bidezkoek, arloko eskumena daukan administrazioaren aurrean formalizatu bada) eskudirutan egindako dohaintzak, haien helburua dohaintza hartzaileak ohiko etxebizitza jabetzan eskuratzea bada.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren pertsonak egindako dohaintzaren (edo dohaintzen) gehieneko zenbatekoa, dohaintza hartzaile bakoitzari letra honetan xedatutakoa aplikatzeko eskubidea ematen diona, 30.000,00 eurokoa izango da.

Letra honetan aipatzen den salbuespena aplikatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Zerga honen autolikidazioa aurkeztea foru arau honen 38. artikulua 8. apartatua ezartzen den epealdian, eta hari dokumentu publiko edo pribatu bat eranstea, berariaz adierazten duena dohaintzan emandako zenbatekoa dohaintza hartzailearen ohiko etxebizitza erosteko dela. Horrekin batera, eskualdaketaren frogagiria ere aurkeztu behar da.

b) Dohaintza hartzaileak 2 urteko epealdiaren barruan eskuratu behar du ohiko etxebizitza, dohaintzaren egunetik zenbatzen hasita, edo, ondoz ondoko dohaintzak egonez gero, lehen dohaintzaren egunetik hasita.

f) letra honetan xedatzen denaren ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 87. artikulua 8. apartatua ezartzen dituen baldintzak betetzen dituena.”

6. artikulua. Ondasun higiezinaren gaineko zerga

Aldaketa hauek egiten dira irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren testu bateginean (2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

Bat. 15. artikuluko 14. puntuko lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“14. Etxebizitza erabilerako ondasun higiezina ez bada subjektu pasiboaren egoitza ez hirugarrenena errentamenduaren edo erabilera lagapenaren bidez, udalek zergaren kuota likidoaren ehuneko 150 arteko errekarua eskatu ahal izango dute. Errekargu hori ondasun higiezinaren gaineko zergaren subjektu pasiboari eskatuko zaie, eta urtero sortu eta likidatuko da zerga honen kuotarekin batera.”

Bi. 15. artikuluko 11. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“11. Zerga ordenantzetan zergaren kuota osoaren ehuneko 99ra arteko hoberia arautu ahal izango da Eusko Jaurlaritzaren programen esparruan lagatzen diren ondasun higiezinentzat: Etxebizitza Hutsen “Bizigune” Programaren esparruan (Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak araututakoa) eta Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP bitartekaritza programen esparruan (Eusko Jaurlaritzaren irailaren 17ko 144/2019 Dekretuak araututakoa) lagatzen diren ondasun higiezinentzat, edo erkidegoko, aldundietako eta udaletako etxebizitza planen eta programen esparruan lagatuko higiezinentzat.”

6 bis artikulua. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga arautzen duen martxoaren 31ko 11/2005 Foru Arauaren 43. artikuluko 1. apartatuaren b) letra aldatzen da eta honela geratzen da (foru arau hau indarrean sartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak):

“b) Aurreko letran ezarritakoaren salbuespen gisa, oro har etxebizitzaren eskualdatzeak, hurrengo letran adierazitakoenak izan ezik, ehuneko 4an tributatu du, garaje plazak barne direla, gehienez ere bi unitaterekin, eta eranskinak ere bi unitaterekin, betiere batzuk zein besteak erai-kin berean badaude eta batera eskualdatzen badira. Ondorio hauetarako, ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko negozioetarako lokalak, nahiz eta etxebizitzekin batera eskualdatu.

Era berean, ondorio hauetarako, ez dira etxebizitzatzat hartuko hirigintza-sustapen berri baten aurretik eraitsi beharreko eraikinak.

Letra honetan aurreikusitako zerga-tasa aplikatzeko, eskuratzailerak ez da izango 5 etxebizitza baino gehiagoren titularrak, ehuneko 50etik gorako portzentajearen. Horretarako, eskuratzailerak erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko du zerga administrazioaren aurrean, eta adierazpenean jasota utzi ez dela 5 etxebizitza baino gehiagoren titularrak, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan, hartara eragotzi gabe zerga administrazioak inguruabar hori administrazio boki egiaztatzea.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintza betetzen ez bada, etxebizitzaren eskualdatzeak ehuneko 6an tributatu du.”

**III. TITULUA
FISKALITATE BERDEA****7. artikulua. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga**

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2025-2035 bitarteko zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 60. artikuluko 2. apartatuaren b) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Ordaintzailearen turismo automobila (atoi eta guzti), ziklomotorra, motozikleta, kiroleko edo zabalaldirako itsasontzia edo aireontzia erabili edo emanaz gero:

— Ondasuna ematen bada, ordaintzaileak hura eskuratzeko jasandako kostua, eragiketaren gaineko zergak barne.

— Ondasuna erabiltzen bada, aurreko paragrafoan aipatzen den kostuaren ehuneko 20 urtean.

Aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera balioespena ehuneko 30 murriztu ahal izango da turismo ibilgailua (atoi eta guzti), motozikleta edo ziklomotorra bateriadun ibilgailu elektrikoa (BEV), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa (REEV), erregai-piladun ibilgailu elektrikoa (FCV) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoa (FCHV) izanez gero.

– Lehenbizi erabili eta gero ematen bada, ematearen baloraziorako kontuan hartuko da aurreko erabileraren balorazioa.

Ordaintzailearena ez den garraio bide bat erabiliz gero, hark jasaten duen kostua, zergak eta gastuak barne.

Aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera balioespena ehuneko 30 murriztu ahal izango da turismo ibilgailua (atoi eta guzti), motozikleta edo ziklomotorra bateriadun ibilgailu elektrikoa (BEV), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa (REEV), erregai-piladun ibilgailu elektrikoa (FCV) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoa (FCHV) izanez gero.

Aurreko kasu guztietan, baldin eta ordaintzaileak ibilgailuaren berezko gastuak ordaintzen baditu (konponketak, erregaia, aparkatzeko zerbitzua eta bidesariak), gauzako etekinaren zenbatekoa hark jasandako kostua izango da.

Ibilgailua lanerako eta helburu partikularretarako erabiltzen bada, gauzako ordainsaria letra honetan ezarritako arau guztien arabera balorazioaren ehuneko 50 izango da.”

Bi. VII. tituluan IV bis kapitulua gehitzen da; hona:

“IV BIS KAPITULUA

KENKARIAK MUGIKORTASUNAREN JASANGARRIAREN, EFIZIENTZIAREN ETATRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ARLOETAN

87 ter artikulua. Kenkaria etxebizitzetako efizientzia energetikoa hobetzeko eta energia berriztagarriak integratzeko obren inguruko

1. Zergadunek ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango dute egiten dituzten obra eta/edo instalazioetan ordaindutako zenbatekoengatik, haien xedea honako hau denean:

– Berokuntza eta hozte eskaria murriztea beren ohiko etxebizitzan edo une horretan errentan emandako beren titulartasuneko beste edozein etxebizitzatan, Hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetzea beren ohiko etxebizitzan edo une horretan errentan emandako beren titulartasuneko beste edozein etxebizitzatan, Hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Birgaitze energetikoko obrak egitea batez ere bizitegi erabilera duten eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko, baldin eta zergadunak bere jabetzako etxebizitza bat badu bertan, bere ohiko etxebizitza dena edo une horretan errentan emanda daukana, Hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, edo baldintza horiek berak betetzen dituzten etxebizitzetako efizientzia energetikoa hobetzeko obrak.

2. Kenkari honen ondorioetarako, obra eta instalazio hauek bakarrik hartuko dira kontuan:

a) Energia berriztagarriak erabiltzea ahalbidetzen duten sorkuntzako ekipoen instalazioa:

1) Eraikinen edo etxebizitzaren eskari termikoa (berokuntza eta etxeko ur beroa) estaltzeko biomasako galdarak.

2) Eraikinen edo etxebizitzaren eskari termikoa (berokuntza eta etxeko ur beroa) estaltzeko aerotermia, hidrotermia eta geotermia sistemak.

3) Eraikinen edo etxebizitzaren autokontsumorako eguzki instalazio fotovoltaikoak (autokontsumo indibiduala zein partekatua).

4) Eraikinaren edo etxebizitzaren etxeko ur beroaren eskaria estaltzeko eguzki instalazio termikoak.

a) letra honen 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren ekipoen instalazioarekin parekatuko da entitateen funts propioen partaidetza dakarten akzioak, partaidetzak edo beste edozein tresna bazkide, akziodun, elkartu, partaide edo antzeko gisa eskuratzea, baldin eta entitatearen sozietate xede nagusia energia termikoa eta/edo elektrikoa sortzeko proiektuak gauzatzea bada, baliabide berriztagarrietatik abiatuta eta ekipo horietan inbertituta. Bi unetan harpidetu daitezke tresna horiek: entitatea eratzen denean edo eratu ondoko bost urteetan kapital zabalkuntza bat egiten denean.

Zergadunaren zuzeneko edo zeharkako partaidetzak ezingo du gainditu entitatearen kapital sozialaren edo haren boto eskubideen ehuneko 10. Zergaduna familia unitate batean badago, muga hori aplikatzean kide guztien partaidetzat hartuko dira kontuan.

b) Etxebizitzaren efizientzia energetikoa hobetzeko proiektuak, jarduketa indibidual edo kolektiboen bidez eraikin osoan egindakoak, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa gutxienez ehuneko 30 murriztea dakartenak, edo etxebizitzaren edo eraikinaren kalifikazio energetikoa hobetzea eta "A" edo "B" motakoa lortzea xede duten proiektuak.

3. Kenkariaren oinarrian artikuluko honen 2. apartatuan aipatzen diren obregatik eta instalazioengatik ordaindutako zenbatekoak sartuko dira.

Horretarako, egindako obregatik eta instalazioengatik ordaindutako zenbatekotzat hartuko dira obrak egiteko beharrezkoak gertatzen direnak, honako hauek ere barnean direla: ordainsari profesionalak, proiektu teknikoak idazteko kostuak, obren zuzendaritza, obrak edo instalazioak egiteko kostua, ekipo eta materialetan egindako inbertsioa, obrak egiteko beharrezkoak diren beste gastu batzuk eta efizientzia energetikoren ziurtagiriak lortzeko egin beharrekoak. Halaber, kenkariaren oinarrian sartuko dira aurreko 2. apartatuaren a) letrako azken bi paragrafoetan aipatzen diren entitateen funts propioetako partaidetza dakarten akzioak, partaidetzak edo bestelako tresnak eskuratzeko ordaindutako kopuruak. Nolanahi ere, jatorri fosileko erregaiak erabiltzen dituzten instalazioetan ekipoak instalatzeak edo ordezteak eragindako kostuak ez dira sartuko zenbateko horietan.

Obrak jabeen erkidego batek egiten baditu, zergadun bakoitzaren kenkariaren oinarria honela kalkulatu da: jabeen erkidegoak ordaindutako zenbatekoei (aurreko paragrafoan aipatutakoei) zergadunak erkidego horretan daukan partaidetzaren koefizientea aplikatu behar zaie.

Urteko gehieneko kenkari oinarria 20.000,00 euro izango da.

Laguntza publikoen programa baten bitartez dirulaguntzak jaso badira edo jasotzeko badaude, eta dirulaguntza horiek salbuetsita badaude zerga honen araudiaren arabera, dirulaguntza horien zenbatekoa aurreko paragrafoetan ezartzen denaren arabera kenkariaren oinarritik kenduko da.

4. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo ondoko ondoko bost urteetan amaitzen diren zergaldietako aitortpenetan aplikatu ahal izango dira. Hurrengo bost ekitaldietako bakoitzean ahalik kenkari handiena aplikatu behar da, eta aldi horretatik kanpo ezin izango da kenkaririk aplikatu hurrengo ekitaldietako kenkariekin metaturik.

5. Kenkari hau ezin da bateratu inbertitutako zenbateko berengatik foru arau honen 87. eta 87 bis artikuluetan arautzen diren kenkariekin.

6. Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatu ahal izateko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Artikulu honen 2. apartatuaren a) letran aipatzen diren sorkuntzako ekipoak instalatu badira, zergadunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar du, zehatz-mehatz deskribatzen duena zer ekipo instalatu den; horrekin batera instalatzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta, behar denean, organo eskudunaren aurrean erregistratu delako ziurtagiria ere bai.

Eguzki instalazio fotovoltaikoa egin bada eraikinaren edo etxebizitzaren autokontsumorako (indibiduala zein partekatua), aurrekoez gainera, Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiria (IEZ) ere aurkeztu beharko da, behe tentsioko erregelamendu elektroteknikoaren arabera (edozein mota-tako instalazio elektrikoetan), enpresa instalatzaileak emana eta organo eskudunak izapidetua. Orobat, sorkuntzako elementuak abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da, organo eskudunak zigilatua.

Entitateen funts propioetako partaidetza dakarten akzioak, partaidetzak edo bestelako tresnak eskuratzen badira, entitate horien helburu nagusia bada artikuluko honen 2. apartatuaren a) letraren 3. eta 4. zenbakietan arautzen diren instalazioen bidez energia termikoa edota elektrikoa sortzea baliabide berriztagarrietatik abiatuta, honako hau beharko da kenkarirako eskubidea frogatzeko: entitateak egindako ziurtagiria, egiaztatzen duena entitateak berak eta akzioak edo partaidetzak eskuratu dituen pertsonak betetzen dituztela eskatzen diren baldintzak; horrez gainera, entitatearen eguzki instalazio fotovoltaikoak energia elektrikoaren autokontsumoko erregistro administratiboan inskribatu direlako egiaztagiria edo, bestela, gorago aipatutako erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da.

b) Artikulu honen 2. apartatuaren b) letran ezartzen diren proiektuen kasuan, etxebizitzaren edo eraikinaren efizientzia energetikoaren ziurtagiriak, proiektua egin aurretik eta ondoren teknikari eskudunek emanak, letra horretan ezartzen diren baldintzak betetzen direla frogatzen dutenak.

Efizientzia energetikoaren ziurtagiriak honako errege dekretu honetan xedatutakoaren arabera egin eta erregistratu beharko dira: 390/2021 Errege Dekretua, ekainaren 1ekoa, eraikinen efizientzia energetikoa ziurtatzeko oinarriko prozedura onesten duena.

Kenkari hau aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko, obrak hasi aurretik emandako ziurtagiriak baliozkoak izango dira, baldin eta ziurtagiria eman denetik obrak hasi arte bi urteko igaro ez badira.

c) Artikulu honetan aipatzen diren obretan eta instalazioetan inbertitutako kopuruen fakturak.

Entitateen funts propioetako partaidetza dakarten akzioak, partaidetzak edo bestelako tresnak eskuratzen diren kasuetan, entitate horien helburu nagusia bada artikuluko honen 2. apartatuaren a) letraren 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren instalazioen bidez energia termikoa edota elektrikoa sortzea baliabide berriztagarrietatik abiatuta, horiek harpidetzeko ordaindutako zenbatekoen frogagiriak aurkeztu beharko dira.

7. Ez dute kenkari hau aplikatzeko eskubiderik emango artikuluko honen 2. apartatuaren a) letran aipatzen diren ekipoetan eta entitateetan jarduera ekonomikoak egiteko inbertitutako zenbatekoek, ez eta jarduera ekonomikoei atxikitako etxebizitza atalean egindako obrek eta instalazioek ere.

8. Artikulu honen 4. apartatuan ezartzen dena gorabehera, kenkaria aplikatuko da horretarako ezarritako baldintza guztiak betetzen direla frogatu denean, zergaldi hauetan:

— Energia berriztagarriak sortzeko edo erabiltzeko ekipoak eskuratu diren zergaldian, baldin eta zergaldi horretan behar diren ziurtagiriak lortu badira, edo entitateen funts propioetako akzioak edo partaidetzak eskuratu eta horri buruzko ziurtagiriak egiten diren zergaldian, artikuluko honen 2. apartatuaren a) letrako kasuetan. Zergaldi horretan gainerako baldintzak betetzen badira, baina ziurtagiri horiek lortu ez badira, kenkaria egiten diren zergaldian aplikatuko da.

— Efizientzia energetikoaren ziurtagiria ematen den zergaldian, proiektua amaitu ondoren, artikuluko honen 2. apartatuaren b) letrako kasuetan.

87 quater artikulua. Kenkaria ingurumena errespetatzen duten ibilgailu jakin batzuk eskura tzeagatik

1. Zergadunek ingurumena errespetatzen duen ibilgailu berria erosten badute, haren esku-ratze balioaren ehuneko 5 kendu ahal izango dute, baldintza hauek betez gero:

1) Ibilgailua kategoria hauetako batekoa izan behar da:

a) M1 turismoak: gutxienez lau gurpil dituzten ibilgailu motordunak, bidaiariak garraiatzeko diseinatuak eta fabrikatuak, gidariaren eserlekuaz gain gehienez zortzi plaza dituztenak.

b) L6e kuadriziklo arinak: hutsean 425 kg-ko edo gutxiagoko masa duten kuadriziklo arinak, baterien masa zenbatu gabe, fabrikazioz, gehienez 45 km/h-ko abiadura edo handiagoa eta gehienez 6 kW-ko potentzia edo handiagoa dutenak.

c) L7e kuadriziklo astunak: lau gurpileko ibilgailuak, abiatzeko gertu daudenean 450 kg-ko masa edo txikiagoa dutenak (baterien masa zenbatu gabe) bidaiariak garraiatzeko direnean, eta 600 kg-koa edo txikiagoa dutenak salgaiak garraiatzeko direnean, kuadriziklo arintzat sailkatu ezin direnak.

d) L3e, L4e, L5e motozikletak: bi gurpileko edo, ibilgailuaren luzerako erdiko ardatzarekiko, hiru gurpil simetrikoko edo asimetriko ibilgailuak, 50 zentimetro kubikotik gorakoak edo 50 km/h-tik gorako abiadura dutenak, ibilgailuaren pisu gordina tona bat baino handiagoa ez denean.

2) Ibilgailuen modeloek Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) Ibilgailuen Basean agertu beharko dute, bai eta honako baldintza hauek bete ere:

a) M1 kategoriako ibilgailuen kasuan, mota hauetako batekoak izan behar dira:

i. Energia elektriko hutsezko ibilgailuak (IEB): erabat eta eskusiboki motor elektriko bidez propulsatutakoak. Motor horien energia, partzialki edo osorik, baterien elektrizitatetik dator, eta ibilgailutik kanpoko iturri batetik datorren energia erabiliz kargatzen dira, adibidez, sare elektrikoetik datorren energiaren bidez.

ii. Autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE): erabat eta eskusiboki motor elektriko bidez propulsatutakoak. Motor horien energia, partzialki edo osorik, baterien elektrizitatetik dator, eta ibilgailutik kanpoko iturri batetik datorren energia erabiliz kargatzen dira, baina gasolina edo gasolio bidezko barne errektuzako motorra ere badute kargatzeko.

iii. Erregai piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE): barruan daukan hidrogenozko erregai pila batetik iristen zaion energia elektriko bako erabiltzen ez duena.

iv. Erregai piladun ibilgailu elektriko hibridoa (EPIEH): erregai pilaz gainera kargatzeko bateriak elektrikoak ere badituena.

b) L kategoriako ibilgailuen kasuan, baldintza hauek bete behar dira:

i. Motor elektriko bidez bakarrik propulsatutakoak izatea eta ibilgailu elektriko gisa homologatuta egotea.

ii. Motozikleta elektriko berriek (L3e, L4e eta L5e kategoriakoek) ezaugarri hauek eduki behar dituzte: litiozko bateriak, motorraren potentzia 3 kW-koa edo handiagoa, eta gutxienez 70 km-ko autonomia.

3) Ibilgailuak ezin izango dira atxiki jarduera ekonomiko bati.

4) Aurreneko matrikulazioa Espainian egina eduki behar dute, zergadunaren izenean.

2. Aurreko apartatua arautzen den kenkaria aurreko apartatuko lehen baldintzan aipatzen diren kategorietako bateko ibilgailu berri bakar baten eskuratze balioaren ehuneko 10 izango da, baldin eta artikuluko horren lehenengo apartatua ezartzen diren baldintza guztiak betetzen badira eta zergadunak bere titulartasuneko ibilgailu bat txatarrera eramaten badu eta behin betiko baja ematen badiu.

3. Kenkari horren oinarria ibilgailuaren eskuratze balioa izango da, eskuratzeak eragindako gastuak eta zergak barne.

Kenkariaren gehieneko oinarria 10.000,00 euro izango da L3e, L4e eta L5e motozikleten kasuan, eta 40.000,00 euro artikuluko honen 1. apartatuko 1. baldintzan aipatzen diren kategorietako ibilgailuen kasuan.

Laguntza publikoen programa baten bitartez dirulaguntzak jaso badira edo jasotzeko badaude, eta dirulaguntza horiek salbuetsita badaude zerga honen araudiaren arabera, dirulaguntza horien zenbatekoa aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera oinarritik kenduko da.

4. Kenkari honen ondorioetarako, eskuratzearekin parekatuko da pertsona edo entitate errentatzaile batek aurreko 1. apartatuan aipatzen diren ibilgailuetako bat jartzea zergadunaren esku, adostutako kuota batzuen truke, aldi jakin batean.

Aurreko paragrafoko kasuan, kenkariaren oinarria zergaldian ordaindutako kuota guztien batura izango da, betiere, aurreko 3. apartatuan ezartzen den gehieneko oinarria kontuan hartuta.

5. Aurreko apartatueta aipatzen diren ibilgailuetako bat eskuratu ondoren jarduera ekonomiko bati atxikitzen bazaio, egindako kenkarirako eskubidea galduko da, eta zergadunak bere zerga egoera erregularizatu beharko du atxikimendu hori egiten den ekitaldiko autolikidazioan. Erregularizazioaren barruan berandutze interesak sartu behar dira.

6. Erregelamendu bidez baldintza gehiago ezarri ahal izango dira kenkari hau aplikatzeko.

87 quinques artikulua. Kenkaria ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeagatik

1. Zergadunak bere gauzetarako erabiltzen duen bere jabetzako ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak bere finka batean edo jabea den aldetik partaidetza kuota ordaintzen duen garaje komunitario batean instalatzeko ordaindutako zenbatekoaren ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango du.

2. Aurreko 1. apartatuan arautzen den kenkaria aplikatzeko, indarreko legerian eskatzen diren baimenak eduki behar dira.

3. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den kenkariaren oinarriak 5.000,00 euroko gehieneko muga edukiko du zergadun eta instalazio bakoitzeko, eta esandako finkan edo garaje komunitarioan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuaren instalazioa amaitu eta abian jartzen den zergaldian aplikatuko da.

Kenkari hau aplikatzeko, zergadunak ordaindutako diru kopuruak frogatu beharko ditu, eta horretarako faktura egokiak aurkeztu beharko ditu. Fakturek beren araudian ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

4. Kenkariaren oinarriko diru kopuruetatik kendu behar da zergadunak kontzeptu kengarri horrengatik jasotzen dituen eta zerga honen kargatik salbuetsita dauden dirulaguntzen zenbatekoa.

Ordaindutako kopuruen zenbatekoa aurreko 3. apartatuan aipatzen den kenkariaren gehieneko oinarria baino gehiago izanez gero, zerga honen kargatik salbuetsitako dirulaguntzek kenkariaren oinarria txikituko dute modu proportzionalan.”

Hiru. 105. artikulua 1. apartatuari k) letra gehitzen zaio; hona testua:

“k) Ingurumena errespetatzen duten ibilgailu batzuk erosteagatik aplika daitezkeen kenkariak (87 quater artikulua) eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeagatik aplika daitezkeen kenkariak (87 quinques artikulua).”

8. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik 2035eko abenduaren 31ra bitartean hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 21. artikulua 1. apartatuaren b) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Foru arau honen 13. artikuluan aipatutako mikroenpresek eta enpresa txikiek erosten dituzten ibilgetu materialeko elementu berriak (foru arau honen 31. artikulua 3. apartatuaren a) letran eta d) letraren lehenengo eta bigarren paragrafoetan azaldutako arauak aplikatzen zaizkien eraikinak eta garraiobideak izan ezik), bai eta enpresak berak eraikitako ibilgetu materialeko elementuak ere, eta zergaldian sinatutako obra kontratuen bidez enkargatutakoak ere bai, baldin eta kontratua amaitzen denetik hamabi hilabete pasatu baino lehen jartzen badira enpresaren esku.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, foru arau honen 13. artikuluan aipatzen diren mikroenpresek eta enpresa txikiek foru arau honen 31. artikulua 3. apartatuaren a) letraren laugarren paragrafoko garraiobideetako bat, a) letraren seigarren paragrafoko baldintzak betetzen dituen, eskuratzen badute, kopuru bat amortizatzeko askatasuna edukiko dute, hain zuzen ere kontzeptu horretarako manu horietan ezartzen diren mugen aplikazioaren ondoriozko kopurua.

Aurreko paragrafoan aipatzen den kasuan, garraio elementuak erabiltzeari buruz 31. artikulua 3. apartatua ezartzen diren arauak ez zaizkie aplikatuko ibilgailu horien amortizazioagatik kontabilizatutako gastuei.

Pertsona batek aldi berean erabiltzen baditu letra honetako bigarren paragrafoan aipatzen diren ibilgailuetako bat baino gehiago, paragrafo horretan adierazitako mugak pertsonako eta urteko aplikatuko dira, erabiltzen dituen ibilgailuen kopurua gorabehera.”

Bi. 21. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Foru arau honen 13. artikuluan aipatzen diren enpresa ertainek erosten dituzten ibilgetu materialeko elementu berriak (foru arau honen 31. artikulua 3. apartatuaren a) letran eta d) letrako lehenengo eta bigarren paragrafoetan azaldutako arauak aplikatzen zaizkien eraikin eta garraiobideak izan ezik) foru arau honen 17. artikuluko taulan ezarritako gehieneko amortizazio koefizientea 1,5ez biderkatuta ateratzen den koefizientearen arabera amortizatu ahal izango dira funtzionatzen hasten direnetik aurrera, baita enpresak berak eraikitako ibilgetu materialeko elementuak ere, eta zergaldian sinatutako obra kontratuen bidez enkargatutakoak ere bai, baldin eta kontratua amaitzen denetik hamabi hilabete pasatu baino lehen jartzen badira enpresaren esku.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, foru arau honen 13. artikuluan aipatzen diren enpresa ertainek foru arau honen 31. artikulua 3. apartatuaren a) letraren laugarren paragrafoko garraiobideetako bat, a) letraren seigarren paragrafoko baldintzak betetzen dituen, eskuratzen badute, funtzionamenduan jartzen denetik amortizatu ahal izango dute foru arau honen 17. artikuluko taulan ezarritako gehieneko amortizazio koefizientea 1,5ez biderkatuta ateratzen den koefizientearen arabera, hain zuzen ere kontzeptu horretarako manu horietan ezartzen diren mugen aplikazioaren ondoriozko kopurua.

Aurreko paragrafoan aipatzen den kasuan, garraio elementuak erabiltzeari buruz 31. artikulua 3. apartatua ezartzen diren arauak ez zaizkie aplikatuko ibilgailu horien amortizazioagatik kontabilizatutako gastuei.

Pertsona batek aldi berean erabiltzen baditu apartatu honetako bigarren paragrafoan aipatzen diren ibilgailuetako bat baino gehiago, paragrafo horretan adierazitako mugak pertsonako eta urteko aplikatuko dira, erabiltzen dituen ibilgailuen kopurua gorabehera.”

Hiru. 62. artikulua 3. apartatuari paragrafo bat gehitzen zaio amaieran; hona testua:

“Foru arau honen 67. artikuluan xedatzen dena gorabehera, kenkariaren oinarritik kenkari-rako eskubidea sortzen duten inbertsioak finantzatzeko jasotzen diren dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da.”

Lau. 62. artikulua 4. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“4. Kenkari ehunekoak hauek izango dira:

a) Kontzeptu hau dela eta zergaldiaren barruan egindako gastuen ehuneko 30.

b) Zergaldian ikerketa eta garapen jarduerak egiteko egindako gastuen ehuneko 35, baldin eta gastu horiek soil-soilik lotuta badaude zergadunek egindako jardueren ingurumen-inpaktu negatiboa nabarmen murriztearekin, eta bat badatoz foru arau honen 65. artikulua 1. apartatua aurreikusitako tipologiekin.

Ikerketa eta garapen jarduerak eragindako gastuak, a) eta b) letretan aipatzen direnak, aurreko bi urteetako batez bestekoak baino gehiago badira, aurreko bi letretan ezarritako porzentajea batez besteko horretara iritsi arte aplikatuko da eta batez besteko horretatik gorako soberakinari ehuneko 50, aurreko a) letrako gastuak badira, eta ehuneko 55, b) letrako gastuak izanez gero.

Apartatu honen aurreko letretan eta aurreko paragrafoan xedatzen denaren arabera kenkariaren gainera, ehuneko 20ko kenkari gehigarria egingo da zergaldiko gastu hauengatik:

a') Entitatearen langile gastuak, ikerketa eta garapenerako jarduerak soilik egiten dituzten ikertzaile kalifikatuei dagozkienak.

b') Ikerketa eta garapen proiektuetan egindako gastuak, proiektua hauetako batekin kontratatuta egonez gero: unibertsitateak, ikerketako erakunde publikoak edo zentro teknologikoak eta teknologiaren berrikuntzarako zentroak (hala onartuta eta erregistratuta daudenak Estatuko zentro teknologikoak eta teknologiaren berrikuntzarako zentroak arautu eta zentro horien erregistroa sortu duen abenduaren 19ko 2093/2008 Errege Dekretuaren arabera), eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren bidez araututako Teknologiaren Euskal Sarean dauden erakundeak.

c') Foru arau honen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera mikroenpresatzat eta enpresa txikitat hartzen diren enpresen kontratazio-gastuak, baldin eta zergadunek egindako jardueren ingurumen-inpaktu negatiboa nabarmen murriztearekin lotutako ikerketa eta garapen jarduerak egiten badituzte, foru arau honen 65. artikulua 1. apartatua aurreikusitako tipologiei erantzunez.

d') Foru arau honen 66 bis artikulua 2. apartatua a) letran xedatzen denaren arabera enpresa berritzailetzat hartzen diren enpresen kontratazio-gastuak, ikerketa eta garapenerako jarduerak egiten badituzte.

c) Ibilgetu materialeko eta ez-materialeko elementuetan inbertitutakoaren ehuneko 10, higiezinak eta lurrak salbu, baldin eta ikerketa eta garapenerako jardueretarako soilik erabiltzen badira.”

Bost. 65. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“65. artikulua. Kenkaria garapen jasagarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzeko proiektuekin lotutako inbertsioengatik eta gastuengatik

1. Zergadunek honako inbertsio eta gastu hauen ehuneko 35eko kenkaria aplikatu ahal izango dute kuota likidoan:

a) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak: iturri berriztagarrietatik datozen energia sortzeko instalazioak.

b) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak: energiaren aldetik efizienteak diren instalazioak eta iturri berriztagarrietatik datorren energia kontsumitzen duten instalazioak (baldintzak araudian ezarriko dira).

c) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako gastuak eta inbertsioak: energetikoki efizienteak diren ekipamenduak eta soilik iturri berriztagarrietatik datorren energiaren garraioa eta banaketa errazten duten instalazioak.

d) Teknologia Garbien Euskal Zerrendako ekipamenduetan eta instalazioetan egindako inbertsioak.

e) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak: energetikoki efizienteak diren ekipamenduak eta emisioak atzitzen dituzten instalazioak, emisio horiek erabili, banatu, garraiatu, biltegitatu edo transmititzeko xedez, baldin eta haien xedea energia berriztagarriak sortzea edo prozesu berriztagarrietan erabiltzea bada.

f) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak: energetikoki efizienteak diren ekipamenduak eta hondakinak murrizteko, birziklatzeko eta balioa emateko instalazioak, ekonomia zirkularra sustatzen dutenak.

2. Zergadunek ondoko kopuruen ehuneko 15 kendu ahal izango dute kuota likidotik:

a) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak eta lur kutsatuak garbitzeko egindako gastuak zergaldian, Euskadiko erakunde ofizialek onarturiko proiektuak gauzatzeko.

b) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, beharrezkoak direnak ondoren adierazten diren helburuetako bat edo batzuk dituzten proiektuak gauzatzeko:

a') Balorizazio materialaren xede izan ezin diren hondakinen balorizazio energetikoa.

b') Naturaguneetako ingurumena birsortzea konpentsazio neurrien edo borondatezko beste jarduketa batzuen bitartez, arreta berezia jarriz naturan oinarritutako konponbideetan, ekosistemak biziberritzeko mekanismo gisa.

Ondorio horietarako, ulertuko da jarduketak ez direla borondatezkoak baldin eta administrazio-ebazpen lotesle edo nahitaezko baten ondorio badira. Nolanahi ere, kenkarirako eskubidea emango du administrazio-ebazpen horrek behartutako jarduketa gainditzen duten inbertsioen zatiak.

c') Uraren kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.

d') Oraingo ekipamendu eta instalazioen ordez energia eta baliabideak efizientzia handiagoarekin erabiltzen dituztenak ipintzea, eta baliagarri dauden teknika hoberenak dauzkaten ekipoak eta instalazioak erostea, Isuri industrialei eta ganadu-hazkuntzatik eratorritako isuriei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko azaroaren 24ko 2010/75/EB Zuzentarauak ezartzen duenarekin bat etorritik (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak).

e') Mugikortasun eta garraio jasangarria, lurreko garraioa salbu.

3. Kenkariaren oinarria ez da 40.000,00 eurotik gorakoa izango Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sartutako turismo-ibilgailuentzat.

Foru honen 67. artikuluan xedatzen dena gorabehera, kenkariaren oinarritik kenduko da kenkari eskubidea sortzen duten inbertsioak eta gastuak finantzatzeko jasotzen diren dirulaguntzen zenbatekoa.

4. Artikulu honen 1. apartatuaren d) letran aipatzen den kenkaria aplikatzeko, zergadunek Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak edo horri atxikitako organismo edo entitate batek egindako txosten arrazoitua aurkeztu ahal izango dute, non adierazten baita Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzen duen Eusko Jaurlaritzako dagokion sailaren aginduan aipatzen diren inbertsioak ekipo osoetan egin direla.

Artikulu honen 1. apartatuaren a), b), c), e) eta f) letretan aipatzen diren kenkariak zergadunak aplikatu behar ditu. Horrek, zerga administrazioak eskatuta, Arabako Foru Aldundian ingurumenaren arloko eskumena daukan sailak egindako ziurtagiria edo Eusko Jaurlaritzaren txosten arrazoitua, edo horiei atxikitako erakunde batek egindakoa, aurkeztu beharko du, hain zuzen ere inbertsioak letra horietan ezartzen diren motekin eta helburuekin bat datozela esaten duena.

Artikulu honen 2. apartatuaren a) letran aipatzen den kenkaria aplikatzeko, zergadunek Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak edo horri atxikitako organismo edo entitate batek egindako txosten arrazoitua aurkeztu ahal izango dute, letra horretan ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena.

Artikulu honen 2. apartatuaren b) letran aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatu behar du Zerga Administrazioak eskatuta. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundian ingurumenaren arloko eskumena daukan sailak edo horri atxikitako organismo edo entitate batek egindako ziurtagiria aurkeztu beharko du, inbertsioek letra horretan ezarritako betekizunak eta helburuak betetzen dituztela egiaztatzen duena.

5. Foru arau honen 67. artikuluan 5. apartatuan xedatzen denari dagokionez, ez da jaregiterik gertatuko artikulu honetan araututako kenkariak baliatzen diren aktiboak, legeak hala aginduta, hirugarrenei lagatzen zaizkienean.

6. 67. artikuluan xedatzen dena eragotzi gabe, artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren kenkariak bateraezinak dira beren artean. Halaber, artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren kenkariak bateraezinak dira 2. apartatuaren a) eta b) letretakoekin.

7. Araudian zehaztu ahal izango da zer kasutan aplikatu ahal izango den kenkari hau, eta aplikatzeko prozedura arautuko da.”

Sei. 67. artikuluan 3. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. Kenkariaren oinarrian hitzartutako kontraprestazio osoa sartuko da, ondokoak izan ezik: korrituak, zeharkako zergak eta haien errekarguak, eraikuntzaren marjina eta lizitazioaren gastu teknikoak (horiek guztiak ez dira zenbatuko kenkariaren oinarrian, baina kontuan har daitezke aktiboak, edo gastuak, baloratzeko).

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ez dira kapitulu honetan ezarritako kenkariaren oinarrian sartuko aktiboekin lotutako desegiteen edo ezabaketaren ondorioz hartutako betebeharreri dagozkien kostuak, baldin eta kenkari horiek aplikatzeko eskubidea ematen badute, aktiboak baloratzeko aintzat hartu zein ez.

Errentamendu operatiboen kasuan, errentatu edo laga den elementuan errentariak egindako inbertsioaren zioz agerian jartzen diren aktiboek ez zaizkie aplikatuko kapitulu honetan araututako kenkariak, berariaz hala ezartzen denean izan ezik.

Foru arau honen 31. artikuluan 3. apartatuan aipatzen diren ibilgailuak direla eta, b) letran aipatzen diren ibilgailuen kasuan soilik aplikatu ahal izango dira kenkariak. Halaber, 31. artikuluan 3. apartatuaren d) letran aipatzen diren garraio elementuak direla eta, hirugarren paragrafoan aipatzen direnen eskualdaketetan soilik aplikatu ahal izango dira kenkariak.

Kenkariaren oinarria, horrela kalkulatu, ezin da izan merkatuan egoera normalean eta pertsona independenteen artean adostuko zen prezioa baino gehiago.

Inbertsioak ondasun higieziari badagozkie, lurzoruaren balioa ezin da sartu kenkariaren oinarrian.

Halaber, aipatutako kenkariaren oinarritik ondoko eragiketaren emaitzako kopurua ere kendu behar da, bidezkoa izanez gero: kapitulu honetan aipatzen diren kenkariak eragiten dituzten inbertsioetarako edo jarduerak sustatzeko dirulaguntzei (kapitalekoak zein ustiapenekoak) 100 eta erakundeari aplikatu beharreko karga tasaren arteko kenketaren emaitzako tasa aplikatzearen emaitza.

Kapitulu honetan araututako kenkariaren oinarrian sartzen diren zenbateko guztiak ibilgetu moduan edo gastu moduan kontabilizatu behar dira Kontabilitate Plan Orokorreko arauetara jarraituz.”

IV. TITULUA GIZARTE AURREIKUSPENA

9. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Aldaketa hauek egiten dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 9. artikuluari 44. apartatua gehitzen zaio; hona testua:

“44. Foru arau honen 18. artikularen a) letran aipatzen diren prestazioak (1., 2. eta 4. zenbakietakoak ez besteak), gizarte aurreikuspeneko mutualitateek norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen bereziaren sistema alternatibo gisa jarduten dutenean, bai eta 6. zenbakian aipatzen direnak ere, errenta moduan jasotzen badira, foru arau honetako 19. artikuluko 2. apartatutako b) letrako bigarren lerrokadan eta 70. artikuluan aurreikusitako gertakizunak eta egoerak gertatzeagatik, foru arau honetako 37. artikuluko e) letran aipatzen diren etekinei dagokien zatian.

Zenbaki honetan aurreikusitakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da errenta gisa aitortutako prestazioa biziartekoa izatea, edo, aldi baterako errenta bada, gutxienez 15 urteko iraupena izatea, eta zenbateko konstantea izatea, arrazoi tekniko edo finantzarioek eragin ditzaketan aldaketak alde batera utzi gabe.

Salbuespena ezin izango da errenta gisa jasotako prestazioaren zenbatekoaren ehuneko 40 baino handiagoa izan.”

Bi. 18. artikularen a) letraren sarrera aldatzen da eta honela geratzen da:

“a) Prestazio hauek, foru arau honetan beste kalifikazio bat ezarri ezean:”

Hiru. 19. artikularen 2. apartatuaren b) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Foru arau honen 18. artikularen a) letran ezartzen diren prestazioak, 6. zenbakikoak ez beste guztiak, kapital moduan jasotzen badira, osorik integratuko dira (ehuneko 100).

Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, kapital gisa jasotzen den kopurua, foru arau honen 37. artikularen e) letran jasotako etekinekin bat ez badator, ehuneko 70ean txertatuko da kontingentzia bakoitzeko jasotzen den lehen prestazioaren kasuan, baldin eta lehen ekarpenetik bi urte baino gehiago igaro badira. Elbarritasunaren eta mendekotasunaren prestazioetan ez da eskatuko bi urteko epealdi hori.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena ez zaie aplikatuko 18. artikularen a) letraren 1., 2. eta 4. zenbakietako kapital prestazioei, baldin eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateek norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren araubide bereziaren sistema alternatibo gisa jarduten badute. Halakoetan, aurreko a) letran arautzen denaren arabera ordainduko da zerga.

Letra honetan arautzen den tratamendua gaixotasun larriaren eta iraupen luzeko langabeziaren kasuetan jasotzen diren zenbatekoei ere aplikatuko zaie, bai eta eskubide ekonomikoen edo eskubide kontsolidatuen erreskatearen edo borondatezko edo nahitaezko bajaren kasuetan jasotzen direnei ere.

Letra honetan ezartzen denaren ondorioetarako, jasotako lehen kopurutzat hartuko da zergaldi batean kapital moduan jasotako kopuruen batura.”

Lau. 37. artikuluari e) letra gehitzen zaio; hona:

“e) Foru arau honetako 18. artikuluko a) idatz-zatian jasotako prestazioak jasotzean gizarte-aurreikuspeneko sistemei enpresek egindako ekarpen eta ekarpenetatik zuzenean datozen etekin positiboak; horretatik kanpo geratzen dira a) letraren 1., 2. eta 4. zenbakietako prestazioak, baldin eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateek norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen bereziaren sistema alternatibo gisa jarduten badute, bai eta a) letraren 6. zenbakiko prestazioak ere.

Ondorio horietarako, errendimendutzat hartuko da aurreko paragrafoan aipatzen diren presazioak jasotzen diren unean zergadunak egindako ekarpenen eta ekarpenen eta eskubide ekonomikoen artean dagoen alde positiboa.”

Bost. 39. artikulua 3. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. Hala ere, foru arau honen 37. artikulua a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren etekin garbiak bi urte baino aldi luzeagoan sortu badira eta ez badira jasotzen aldizka ez behin baino gehiagotan, etekinen ehuneko 60 integratu behar da. Etekinak bost urte baino aldi luzeagoan sortu badira edo arau bidez denboran modu irregular nabarmenean lortutzat jotzen badira, etekinen ehuneko 50 integratu behar da.”

Sei. 63. artikulua b) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Foru arau honen 34., 35. eta 36. artikuluetan eta 37. artikulua e) lettran ezartzen diren kapital higigarriaren etekinak. Hala ere, erregelamendu bidez ezartzen diren kasuetan izan ezik, 35. artikuluan ezartzen diren kapital higigarriaren etekinak, zergadunarekin lotutako entitateetatik datozenak (lotura Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 42. artikuluan eta foru arau honen 54. artikulua hirugarren paragrafoan zehazten da), errenta orokorrean sartuko dira.”

Zazpi. 70. artikulua 4. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“4. Baldin eta, pentsio planei eta funtsei buruzko araudiko kasuak ez beste batzuetan eta borondatezko edo nahitaezko baja edo gizarte aurreikuspeneko entitatearen likidazioa gertatu gabe, zergadunak artikulua honetan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetan dauzkan eskubide sendotuak eta eskubide ekonomikoak erabiltzen baditu (denak edo batzuk), zerga oinarri orokorrean aplikatutako bidegabeko murrizketen zenbatekoa itzuli beharko du autolikidazio osagarrien bidez, berandutze interesak gehituta, behar den zergaldietan.

Jasotako kopuruaren zenbatekoa egindako ekarpenena (sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne) baino gehiago izanez gero, lanaren etekin moduan kargatuko dira jasotzen diren zergaldien, honako kasu honetan izan ezik: foru arau honen 37. artikulua e) lettran xedatzen dena aplikatu behar denean.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren kopuruak errenta modura jasoz gero, ez da aplikatuko foru arau honen 9. artikulua 44. zenbakian xedatzen dena.”

Zortzi. 71. artikulua 1. eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“1. Berariazko araudian ezartzen diren finantza-mugak gora behera, gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpenetatik eta kontribuzioetatik aplikatzen diren murrizketek muga hauek edukiko dituzte:

a) 5.000,00 euro urtean, bazkideek, partaideek, mutualistek eta aseguratuak aurreko artikuluan aipatzen diren (eta hurrengo letretan aurreikusitakoak ez diren) gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen baturarako.

b) 8.000,00 euro urtean, bazkide babesleek, aurreko artikulua 1. apartatuaren 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren enpleguko pentsio planen sustatzaileek, enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa edo enpresaren gizarte aurreikuspeneko planetan hartzaile gisa jarduten duten gizarte aurreikuspeneko mutualitateek edo mendetasuneko aseguru kolektiboek bazkide, partaide, mutualista, edo aseguratuaren alde egin eta haiei egotzitako kontribuzio enpresarialen baturarako, bai eta bazkide, partaide, aseguratu edo mutualista horiek gizarte aurreikuspeneko sistema horietara egindako ekarpenen baturarako ere. Ekarpeneren horiek izan daitezke negozioaren kolektiboan adostutakoak, bazkide diren langileen kasuan planaren erregelamendutik eratorritakoak, edo sozietate kooperatibo edo laboralen lanetik eratorritakoak, bai eta langileak hartutako erabaki baten ondoriozkoak.

Norbanako enpresaburuak edo profesionalek gizarte aurreikuspeneko planetara edo mutualitateetara, aurreko artikulua 1. apartatuaren 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren enplegu-pentsio planetara edo enpresen gizarte aurreikuspeneko planetara edo mendekotasuneko aseguru kolektiboetara egiten dituzten ekarpen propioak, berak aldi berean direla sustatzaileak eta partaideak, mutualistak edo bazkide babesleak eta onuradunak, gehieneko kopuruan sartuko dira, baldin eta ekarpenok norbanako enpresaburuak edo profesionalak beren kargurako langileen alde egiten dituen kontribuzioen proportziozkoak badira, kontuan hartuta soldata portzentajea, proportzio ekonomikoa edo antzeko inguruabarren bat.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko planetara egiten diren ekarpenek arau ezartzen diren baldintzak bete behar dituzte.

c) 4.000,00 euro urtean, partaide eta bazkideak beren kontura ari diren langile autonomoak diren enplegu-gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpenen baturarako.

Kargurako langilerik ez duten beren konturako langile autonomoek enplegu-gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten dituzten ekarpenak muga horren barruan sartuko dira.

Kooperatiba-sozietateetako eta lan-sozietateetako bazkide langileek edo lan-bazkideek egindako ekarpenak ez dira c) letra honetan aurreikusitako muga barruan sartzen.

d) 1. apartatu honen aurreko a), b) eta c) letretan ezartzen dena gorabehera, eta haietan ezartzen diren mugak aintzat hartuta, enpresek gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten dituzten ekarpenek eta kontribuzioek muga hau edukiko dute: 10.000,00 euro urtean. Enplegu-gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindakoek lehentasuna edukiko dute."

"4. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, zergaldian enpresen ekarpenak eta kontribuzioak biltzen direnean, lehenik eta behin enplegu-sistemetarako ekarpen eta kontribuzioei dagokien murrizketa aplikatuko da, eta, ondoren, enplegu-gizarte aurreikuspeneko sistemetarako ekarpenei dagokiena. Nolanahi ere, 1. apartatuko a), b), c) eta d) letretan ezarritako mugak aplikatuko dira."

Bederatzi. 93 bis artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"93 bis artikulua. Kenkaria ekarpenak egiteagatik borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara

1. Zergadunek ekarpenak egiten badizkiete borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara, kenkaria aplikatu ahal izango dute zergaren kuota osoan, baldintza hauekin:

a) Egindako ekarpenen eta kontribuzio enpresarialen guztirako zenbatekoa entitate enplegatzailerik urtean ordaindutako soldata gordin osoaren ehuneko 3 edo gehiago eta ehuneko 5etik beherakoa bada, kenkaria ehuneko 15ekoa izango da.

b) Egindako ekarpenen eta kontribuzio enpresarialen guztirako zenbatekoa entitate enplegatzailerik urtean ordaindutako soldata gordin osoaren ehuneko 5 edo gehiago eta ehuneko 8tik beherakoa bada, kenkaria ehuneko 20koa izango da.

c) Egindako ekarpenen eta kontribuzio enpresarialen guztirako zenbatekoa entitate enplegatzailerik urtean ordaindutako soldata gordin osoaren ehuneko 8 edo gehiago bada edo zerga sortzen den egunean zergadunak 36 urte baino gutxiago badauzka, kenkaria ehuneko 25ekoa izango da.

2. Kenkariaren oinarria haxe izango da: zergadunak negoziazio kolektiboaren ondorioz egindako ekarpenen batura, hain zuzen ere foru arau honetan ezartzen denari jarraikiz zerga oinarria murriztu duten ekarpenen batura.

3. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo ondoko ondoko bost zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira.

Hurrengo bost zergaldietako bakoitzean ahalik kenkari handiena aplikatu behar da, eta aldi horretatik kanpo ezin izango da kenkaririk aplikatu hurrengo zergaldietako kenkariekin metaturik.

4. Aurreko 3. apartatuan xedatzen dena kuota osoa nahikoa den lehen zergaldian aplikatuko da, baina betiere egin gabeko kenkariak (batzuk edo denak) aplikatuko diren zergaldian kontzeptu horiengatik sortutako kenkaria aplikatu aurretik.”

Hamar. VII. tituluaren VII. kapituluaren 93 ter artikulua gehitzen da; hona testua:

“93 ter artikulua. Kenkariak partaideak edo bazkide osoak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak diren enpleguko aurreikuspen sistemetara egiten diren ekarpenengatik, eta kargurako langilerik ez duten beren konturako langile autonomoek enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten dituzten ekarpenengatik

1. Zergadunek enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemetan egindako ekarpenek, zeinetan partaide edo bazkide osoak norberaren konturako langileak edo autonomoak diren (Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetako legediaren babesean sortutako sistemak barne) zergaren kuota osoan ehuneko 10eko kenkaria izateko eskubidea emango dute.

Ekarpenak egiten dituen zergadunak 36 urte baino gutxiago badauzka zerga sortzen den egunean, aurreko paragrafoko portzentajea ehuneko 15 izango da, eta ekarpenak borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitate bateko lehentasunezko aurreikuspen plan batera egiten direnean ere bai.

Aurreko paragrafoetan arautzen den kargurako langilerik ez duten beren konturako langile autonomoek enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten dituzten ekarpenengatik ere aplikatu ahal izango da.

2. Kenkariaren oinarria hauxe izango da: zergadunak egin eta foru arau honetan ezartzen denari jarraikiz zerga oinarria murriztu duten ekarpenen batura.

3. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo ondoz ondoko bost zergaldietako aitortpenetan aplikatu ahal izango dira.

Hurrengo bost zergaldietako bakoitzean ahalik kenkari handiena aplikatu behar da, eta aldi horretatik kanpo ezin izango da kenkaririk aplikatu hurrengo zergaldietako kenkariekin metaturik.

4. Aurreko 3. apartatuan xedatzen dena kuota osoa nahikoa den lehen zergaldian aplikatuko da, baina betiere egin gabeko kenkariak (batzuk edo denak) aplikatuko diren zergaldian kontzeptu horiengatik sortutako kenkaria aplikatu aurretik.”

Hamaika. 105. artikulua 1. apartatuari l) letra gehitzen zaio; hona testua:

“l) 19. artikulua 2. apartatuaren b) letran (2025eko abenduaren 31n indarrean dagoen testua) ezartzen den araubidea aplikatzeko hautapena (hogeita hamaikagarren xedapen iragankorrean arautzen da).”

Hamabi. Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarriaren c) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“c) Baldin eta, pentsio planei eta funtsei buruzko araudiko kasuak ez beste batzuetan eta borondatezko edo nahitaezko baja edo gizarte aurreikuspeneko entitatearen likidazioa gertatu gabe, zergadunak xedapen gehigarri honetan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetan dauzkan eskubide sendotuak eta eskubide ekonomikoak erabiltzen baditu (denak edo batzuk), zerga oinarri orokorrean aplikatutako bidegabeko murrizketen zenbatekoa itzuli beharko du, berandutze interesak gehituta, behar den zergaldietan.

Jasotako kopuruaren zenbatekoa egindako ekarpenena (sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne) baino gehiago izanez gero, lanaren etekin moduan kargatuko dira jasotzen diren zergaldian, honako kasu honetan izan ezik: foru arau honen 37. artikulua (e) letran xedatzen dena aplikatu behar denean.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren kopuruak errenta modura jasoz gero, ez da aplikatuko foru arau honen 9. artikulua (44. zenbakian xedatzen dena)."

Hamahiru. Hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona:

"Hogeita hemezortzigarrena. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara egindako ekarpenak.

2025 - 2029 bitarteko zergaldietan zergadunek ekarpenak egiten badituzte negoziazio kolektiboaren ondorioz borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara eta horiek zerga oinarri orokorra murrizten badute, ekarpen horiek eskubidea emango dute zergaren kuota osoan ehuneko 10eko kenkaria aplikatzeko, baldin eta ekarpenen eta kontribuzio enpresarialen baterako zenbatekoa entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordinaren ehuneko 3 baino gutxiago bada.

Kenkariaren oinarria hauxe izango da: zergadunak negoziazio kolektiboaren ondorioz egindako ekarpenen batura, hain zuzen ere foru arau honetan ezartzen denari jarraikiz zerga oinarria murriztu duten ekarpenen batura.

Kuota osoa nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo ondoz ondoko bost zergaldietako aitortpenetan aplikatu ahal izango dira.

Hurrengo bost ekitaldietako bakoitzean ahalik kenkari handiena aplikatu behar da, eta aldi horretatik kanpo ezin izango da kenkaririk aplikatu hurrengo ekitaldietako kenkariekin metaturik.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena kuota osoa nahikoa den lehen zergaldian aplikatuko da, baina betiere egin gabeko kenkariak (batzuk edo denak) aplikatuko diren zergaldian kontzeptu horiengatik sortutako kenkaria aplikatu aurretik."

Hamalau. Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona:

"Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. Enpleguko aurreikuspen sistemetara, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko aurreikuspen planak ez beste batzuetara, egiten diren ekarpenen araubidea.

Foru arau honen 93 bis eta 93 ter artikuluetan eta hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian ezartzen dena borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko aurreikuspen planak ez diren enpleguko aurreikuspen sistemetara egindako ekarpenei aplikatuko zaie, are Europar batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuen legeriaren arabera sortutakoetara egindakoei ere, baldin eta, horien zehaztapenekin bat etorritik, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko aurreikuspen planen buruzko araudian ezartzen diren baldintzak betetzen badira."

Hamabost. Berrogeigarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona hemen edukia:

"Berrogeigarrena. Enpresek gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenetatik eta kontribuzioetatik zuzenean eratorritako etekin positiboak.

Baldin eta aurreikuspen-sistemari lehen ekarpena 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen egin bazaio, eta, baldin eta behartutako erakundeek ez badute foru arau honen 37. artikulua (e) letran aipatzen den errendimenduarekin bat datorren gizarte-aurreikuspeneko sistemetan integratutako eskubide ekonomikoen zatiari buruzko informaziorik (eta, ondorioz, ezin dutenez datu hori Zerga Administrazioaren eskura jarri) etekin horren zenbatekoa honako hau izango da: prestazioen hartzaileak aurreikuspen-sisteman urte bakoitzean jasotako prestazioaren zenbatekoaren gainean ehuneko 1eko ehuneko aplikatzearen emaitza (muga: prestazio horien ehuneko 35).

Ondorio horietarako, aurreikuspen-sistemako prestazioen hartzailearen antzintasuna zehazteko, prestazioa errenta gisa jasotzea aitortu arteko urte kopurua zenbatuko da.

Behartutako erakundeek ez badute jasotzaileak gizarte-aurreikuspeneko sisteman duen antzintasunari buruzko informaziorik, eta, beraz, datu hori zerga-administrazioaren esku uzten ez badute, xedapen gehigarri honen lehen paragrafoan aipatzen den errendimendua kalkulatzeko, jasotako prestazioaren zenbatekoari ehuneko 25eko ehunekoa aplikatuko zaio.

Erregelamenduz ezarri ahal izango dira xedapen gehigarri honetan xedatutakoa aplikatzeko arau gehigarriak.”

Hamasei. Berrogeita batgarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona:

“Berrogeita batgarren xedapen gehigarria: Entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordina.

Gizarte aurreikuspeneko plan batzuetara egindako ekarpenegatik aplika daitezkeen kenkariak (foru arau honetan arautzen direnak) kalkulatzeko, araudian ezarriko dira urtean ordaindutako soldata gordina kalkulatzeko kontuan eduki beharreko parametroak.”

Hamazazpi. Hogeita hamaikagarren xedapen iragankorra gehitzen da; hona edukia:

“Hogeita hamaikagarrena. Araubide iragankorra foru arau honen 18. artikulua a) letran aipatzen diren prestazioak, 6. zenbakikoak ez beste guztiak, kapital moduan jasotzen direnerako.

Zergadunek hautatu ahal izango dute foru arau honen 18. artikulua a) letran aipatzen diren prestazioetatik (6. zenbakikoak ez beste guztiak) kapital moduan jasotako zatiari 19. artikulua 2. apartatuaren b) letran ezartzen den araubidea aplikatzea (2025eko abenduaren 31n indarrean dagoen testua), baldin eta prestazio horiek 2026ko urtarrilaren 1 baino lehen egindako ekarpen eta kontribuzio enpresarialetatik badatoz.

Aurreko paragrafoko kasuetan ez da aplikatuko foru arau honen 37. artikulua e) letran eta 63. artikulua b) letran xedatzen dena.”

10. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 66 sexies artikulua gehitzen da V. tituluaren III. kapituluari; hona testua:

“66 sexies artikulua. Kenkaria borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara enpresek egindako kontribuzioengatik

1. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara enpresek egindako kontribuzioek kenkaria aplikatzeko eskubidea emango dute. Kenkari hori honela aplikatuko da:

a) Enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako kontribuzio horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren ehuneko 1,5 edo gehiago eta ehuneko 2,5 baino gutxiago bada, kenkaria ehuneko 15ekoa izango da.

b) Enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako kontribuzio horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren ehuneko 2,5 edo gehiago eta ehuneko 4 baino gutxiago bada, kenkaria ehuneko 20koa izango da.

c) Enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako kontribuzio horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren ehuneko 4 edo gehiago bada, edo 36 urtetik beherakoan aldekoak badira, kenkaria ehuneko 25ekoa izango da.

2. Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei zergan egotzitako kontribuzioen batura izango da.”

Bi. 66 septies artikulua gehitzen da V. tituluaren III. kapituluan; hona testua:

“66 septies artikulua. Kenkaria enpresek enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako kontribuzioengatik

1. Enpresek foru arau honen 66 sexies artikuluan ezartzen direnak ez beste kontribuzio batzuk egiten badituzte enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara, kontribuzio horien ehuneko 10eko kenkaria aplikatu ahal izango da zergaren kuota likidoan, baldin eta haien zenbatekoa entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren ehuneko 1,5 edo gehiago bada edo zerga sortzen denean 36 urte baino gutxiago dauzkan pertsona baten aldekoa bada.

Artikulu honetan arautzen den kenkaria modu berean aplikatuko zaie Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu baten legeriaren arabera sortutako aurreikuspen sistemetara egindako kontribuzioei, baldin eta aurreko paragrafoan arautzen diren aurreikuspen sistemei aplikatzen zaien arautegiko baldintzak betetzen badituzte.

2. Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei zergan egotzitako kontribuzioen batura izango da.”

Hiru. 128. artikulua 1. apartatuaren v) letraren edukia honela finkatzen da:

“v) Gizarte aurreikuspeneko planetara egiten diren kontribuzioak (hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrietan arautzen direnak) egiteagatik aplika daitezkeen kenkariak.”

Lau. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona:

“Hogeita zortzigarrena. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara egindako kontribuzioak.

1. 2025eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra bitarteko zergaldietan zergadunek langileei egotzitako kontribuzioak egiten badituzte negoziazio kolektiboaren ondorioz 66 sexies artikuluan aipatzen diren lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara, ekarpen horiek eskubidea emango dute zergaren kuota likidoan ehuneko 10eko kenkaria aplikatzeko, baldin eta kontribuzio horien guztirako zenbatekoa entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordinaren ehuneko 1,5 baino gutxiago bada.

2. Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei zergan egotzitako kontribuzioen batura izango da.

3. Kenkari honi foru arau honen 59. eta 67. artikuluetan ezartzen diren erregelak aplikatuko zaizkio.”

Bost. Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona:

“Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako kontribuzioak.

1. 2025eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra bitarteko zergaldietan zergadunek langileei egotzitako kontribuzioak egiten badituzte negoziazio kolektiboaren ondorioz foru arau honen 66 septies artikuluan aipatzen diren enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara, ekarpen horiek eskubidea emango dute zergaren kuota likidoan ehuneko 5eko kenkaria aplikatzeko, baldin eta kontribuzio horien guztirako zenbatekoa entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordinaren ehuneko 1,5 baino gutxiago bada.

Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei zergan egotzitako kontribuzioen batura izango da.

2. Kenkari honi foru arau honen 59. eta 67. artikuluetan ezartzen diren erregelak aplikatuko zaizkio.”

Sei. Hogeita hamargarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona:

“Hogeita hamargarren xedapen iragankorra. Enpleguko aurreikuspen sistemetara, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko aurreikuspen planak ez beste batzuetara, egiten diren kontribuzioen araubidea.

Foru arau honen 66 sexies artikuluan eta hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian ezartzen dena borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko aurreikuspen planak ez diren enpleguko aurreikuspen sistemetara egindako ekarpenei aplikatuko zaie, are Europar batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuen legeriaren arabera sortutakoetara egindakoei ere, baldin eta, horien zehaztapenekin bat etorritik, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko aurreikuspen planei buruzko araudian ezartzen diren baldintzak betetzen badira.”

V. TITULUA GEHIKORTASUNA ETA EKOIZPEN SAREA BULTZATZEA

11. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Aldaketa hauek egiten dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 9. artikulua 5. apartatuaren azken paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Zenbaki honetan ezarritako kalte-ordain salbuetsiaren zenbatekoa ezin da izan 183.600,00 euro baino gehiago.”

Bi. 23. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“1. Lanaren etekin osoen guztirako zenbatekoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboa bada, hobari hau aplikatuko da:

a) Diferentzia 14.800,00 eurotik gorakoa ez bada, 8.000,00 euroko hobaria.

b) Diferentzia 14.800,01 - 23.000,00 euro artekoa bada, 8.000,00 euroko hobaria, honako hau kenduta: diferentziatik 14.800,00 euro kendu eta emaitzako zenbatekoa 0,6098az biderkatzearen emaitza.

c) Diferentzia 23.000,00 euro baino gehiago bada, 3.000,00 euroko hobaria.

2. Zerga oinarrian lanetik ez datozen errentak konputatzen badira eta horien zenbatekoa 7.500,00 euro baino gehiago bada, hobaria 3.000,00 eurokoa izango da.

3. Aurreko apartatuetan aipatzen diren hobariak kasu hauetan gehituko dira:

a) Zergaduna aktibo dagoen langile desgaitua bada eta beraren desgaitasunaren gradua ehuneko 33 eta 65 bitartekoa bada, hobaria ehuneko 100 gehituko da.

b) Zergaduna aktibo dagoen langile desgaitua bada, beraren desgaitasuna ehuneko 33 eta 65 bitartekoa bada eta mugitzeko gaitasuna murriztuta badauka, hobaria ehuneko 250 gehituko da. Halakotzat joko dira desgaitasunaren gradua aintzatesteko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun-jarduere mugak ebaluatzeko azpibaremoaren arabera mugitzeko gaitasuna ehuneko 25 edo gehiago murriztuta daukaten pertsonak. Ehuneko bera aplikatuko zaie ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukaten langile aktibo desgaituei ere.”

Hiru. 41. artikulua 2. apartatuaren c) letrako bigarren baldintzaren lehen paragrafoa eta letra beraren azken paragrafoa aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“Bigarrena. Eskualdatzailak zuzendaritza lanak egin izan baditu, eskualdaketa unetik bi urte igarotakoan lan horiek egiteari eta haien ordainsariak jasotzeari uztea.”

“c) letra honetan ezartzen dena zergaduna titularra, akzioduna edo partaidea den entitate bakoitzaren eskualdaketa bati bakarrik aplikatuko zaio; eskualdaketa egiten duen zergadunak eragiketaren datuak adierazi beharko ditu bere autolikidazioan.”

Lau. 76. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Aurrezkiaren likidazio oinarriari eskala honetan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:

AURREZKIAREN OINARRI LIKIDAGARRIA / ZENBATERAINO	KUOTA OSOA EUROTAN	GAINERAKO OINARRI LIKIDAGARRIA / ZENBATERAINO	TIPO APLIKAGARRIA / PORTZENTAJEA
0,00	0,00	7.500,00	ehuneko 19,00
7.500,00	1.425,00	7.500,00	ehuneko 20,00
15.000,00	2.925,00	15.000,00	ehuneko 22,00
30.000,00	6.225,00	20.000,00	ehuneko 24,00
50.000,00	11.025,00	40.000,00	ehuneko 25,50
90.000,00	21.225,00	30.000,00	ehuneko 26,00
120.000,00	29.025,00	120.000,00	ehuneko 26,50
240.000,00	60.825,00	60.000,00	ehuneko 27,00
300.000,00	77.025,00	Hortik gora	ehuneko 28,00

Bost. 89. artikulua 4. apartatua f) letra gehitzen zaio; hona testua:

“f) Kooperatiben kapital sozialera egiten diren ekarpenak nahitaezkoak izan behar dira Euskadiko kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legean xedatzen denaren arabera.”

Sei. 102. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“102. artikulua. Autolikidazioa egin beharra

1. Zergadunek zerga honen autolikidazioa aurkeztu eta sinatu beharko dute. Arau bidez finkatuko dira mugak eta baldintzak.

2. Hala ere, errentak honako iturri hauetatik soilik lortzen dituzten zergadunek ez dute autolikidaziorik egin beharko:

a) Lanaren etekin gordinak, urteko 20.000,00 euroko mugarekin banakako zerga ordainketan. Baterako tributazioan, muga hori horrelako etekinak izan dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare gehikuntzak, salbuetsitakoak barne, urteko guztiak bat eginda 1.600,00 euro baino gehiago izan ez badira.

Letra honetan xedatzen dena ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko entitateen akzioen edo partaidetzen eskualdaketek edo itzulketek sortzen dituzten ondare irabaziei, baldin eta arauz ezarritakoaren arabera atxikipen oinarria ez bada zehaztu behar zerga oinarrian integratu beharreko zenbatekoa aintzat hartuta.

3. Autolikidazioa nahitaez aurkeztu beharko dute kasu guztietan zerga ordainketan salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo onuraren bati heltzeko eskubidea edukitzeko ezarritako baldintza, epe edo gainerako inguruabarretako bat, zerga administrazioari jakinarazi beharra edo erregularizazio edo sarreraren bat egin beharra dakarrena, betetzen ez duten zergadunek.

4. Zergadunek eragiten dieten autolikidazioko datu guztiak adierazi behar dituzte. Gainera, ezarritako eta ezartzen diren dokumentuak eta frogagiriak aurkeztu behar dituzte.

5. Kausatzailearen oinordekoek falta diren zerga honen autolikidazioak aurkeztu eta sinatu beharko dituzte, zehapenak bazter utzita, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 39. artikuluaekin bat etorritik.

6. Zergadunek egoitza aldatzen badute eta horrek zerga eskatzeko eskumenean aldaketak eragiten baditu, horren berri eman beharko diote zerga administrazioari.

7. Autolikidazio ereduak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartuko ditu, bai eta autolikidaziorako modalitate erraztuak edo bereziak erabiltzea ere. Foru diputatu horrek berak zehaztuko du autolikidazioa nola eta noiz aurkeztu behar den, eta autolikidazioak baliabide telematikoen bidez nolako kasuetan eta nola aurkez daitezkeen finkatuko du.

8. Foru Aldundiak ezarritako baliabideak, prozesu informatikoak edo bestelakoak edo zerbitzuak erabiliz edo horietaz baliatuz egin daitezke zerga honen autolikidazioak, arau bidez finkatzen denaren arabera.”

Zazpi. Hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 8. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“8. Zergaren zerga oinarrian ez dira sartuko xedapen gehigarri honetan zehazten diren sariak, eta haien zenbatekoa ez da kontuan hartuko foru arau honen 102. artikulua 2. apartatuaren b) letran xedatzen diren ondorioetarako. Foru arau honetan xedatzen denarekin bat etorri aplikatzen diren atxikipenek edo konturako sarrerek ez dute murriztuko zergaren kuota likido osoa, eta ez dira kontuan hartuko foru arau honen 112. artikuluan xedatzen diren ondorioetarako.”

Zortzi. Berrogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona hemen edukia:

“Berrogeita hirugarrena. Etxebizitzaren merkatua tentsionatzea.

Foru arau honen 86. artikulua 8. paragrafoan eta 87. artikulua 10. paragrafoan aurreikusitako muga erregelamendu bidez aldatu ahal izango da etxebizitzaren merkatuan tentsio-egoerak daudenean.

Ondorio horietarako, 2026tik 2030era bitartean, biak barne, etxebizitzaren merkatuan tentsionamendua gertatzen dela ulertuko da.”

12. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 32. artikulua 4. apartatuaren lehenengoa paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“4. Foru arau honen 13. artikulua 1. apartatua aipatutako mikroenpresek zerga oinarri zerga oinarri positiboaren ehuneko 15 kengarritzat jo ahalko dute, aldez aurretik apartatu honetan ezartzen dena aplikatuz, foru arau honen 48. artikulua edo foru arau honen hogeita bigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren errenta positiboak aplikatu aurretik, VI. titulua III. kapituluaren ezartzen denaren ondorioen aurretik eta foru arau honen 55. artikuluan arautzen diren zerga oinarri negatiboak konpentsatu aurretik, dimentsioa dela eta berez dituen zailtasunen zerga konpentsazio gisa.”

Bi. 55. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Likidatu edo autolikidatu diren zerga oinarri negatiboak hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako errenta positiboekin konpentsatu ahal izango dira, muga honekin: konpentsazioa egin aurreko zerga oinarri positiboaren ehuneko 50. Muga ez zaie aplikatuko foru arau honen 13. artikuluan zehazten diren mikroenpresei eta enpresa txikiei, honako kasu honetan izan ezik: foru arau honen VI. titulua VI. kapituluaren aipatzen den araubide berezian daudenean.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zerga oinarri negatiboaren konpentsazioaren muga ez zaio aplikatuko zergadunaren hartzekodunetik akordioaren ondoriozko kita edo itxaronaldiei dagozkien errenten zenbatekoari.

Apartatu honetan ezartzen den muga ez da aplikatuko entitatea iraungitzen den zergaldian, iraungitze horri foru arau honen VI. tituluaren VII. kapituluaren zehaztutako araubide fiskalean jasotako berregituratze eragiketa bat aplikatu behar zaionean salbu.

Oraintsu sortutako entitateek zerga oinarri positiboa duten lehen zergalditik aurrera zenbatu ahal izango dute apartatu honetan aipatzen den konpentsazio aldia. Arau hori bera aplikatuko zaie ordaindu beharreko autopista, tunel eta bide berrien kontzesioa lortzen duten sozietateek horien ustiapenaren ondorioz dituzten zerga oinarri negatiboak ere.”

Hiru. 56. artikuluan 2. apartatua aldatzen da eta 7. apartatua gehitzen da; honako edukiarekin:

“2. Foru arau honen 14. artikuluan aipatzen diren ondare sozietateei eskala hau aplikatuko zaie:

AURREZKIAREN OINARRI LIKIDAGARRIA / ZENBATERAINO	KUOTA OSOA EUROATAN	GAINERAKO OINARRI LIKIDAGARRIA / ZENBATERAINO	TIPO APLIKAGARRIA / PORTZENTAJEA
0,00	0,00	7.500,00	ehuneko 19,00
7.500,00	1.425,00	7.500,00	ehuneko 20,00
15.000,00	2.925,00	15.000,00	ehuneko 22,00
30.000,00	6.225,00	20.000,00	ehuneko 24,00
50.000,00	11.025,00	40.000,00	ehuneko 25,50
90.000,00	21.225,00	30.000,00	ehuneko 26,00
120.000,00	29.025,00	120.000,00	ehuneko 26,50
240.000,00	60.825,00	60.000,00	ehuneko 27,00
300.000,00	77.025,00	Hortik gora	ehuneko 28,00

7. 2026ko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra arte hasten diren zergaldietan, foru arau honetako 1. paragrafoko a) idatz-zatian eta 56. artikuluko 6. eta 7. paragrafoetan aurreikusitako zerga-tasak ordaintzen dituzten zergadunek, foru-arau honetako 13. artikuluan definitutako enpresa ertainez bestelakoak badira, eta zergaldian aurreko hiru zergaldietan lortutako kontabilitate-emaizta positiboaren batez bestekoa ehuneko 35 gairiditzen duen kontabilitate-emaizta positiboa lortzen badute, kuota osoaren gehikuntza izango dute, erregelamendu bidez ezartzen den moduan, eta ehuneko hauek aplikatuta lortuko da:

– Aipatutako gairidikinaren ondoriozko zerga-oinarriaren gehikuntzari dagokion kuota osoaren zatiari, ehuneko 35etik gorakoa eta aurreko hiru zergaldietako kontabilitate-emaizten batez bestekoaren ehuneko 50ekoa edo txikiagoa bada, ehuneko 1eko tasa gehigarria aplikatuko zaio.

– Aipatutako gairidikinaren ondoriozko zerga-oinarriaren gehikuntzari dagokion kuota osoaren zatiari, ehuneko 50etik gorakoa eta aurreko hiru zergaldietako kontabilitate-emaizten batez bestekoaren ehuneko 75ekoa edo txikiagoa bada, ehuneko 2ko tasa gehigarria aplikatuko zaio.

– Aipatutako gairidikinaren ondoriozko zerga-oinarriaren gehikuntzari dagokion kuota osoaren zatiari, ehuneko 75etik gorakoa eta aurreko hiru zergaldietako kontabilitate-emaizten batez bestekoaren ehuneko 100ekoa edo txikiagoa bada, ehuneko 3ko tasa gehigarria aplikatuko zaio.

– Aipatutako gairidikinaren ondoriozko zerga-oinarriaren gehikuntzari dagokion kuota osoaren zatiari, aurreko hiru zergaldietako kontabilitate-emaizten batez bestekoaren ehuneko 100ekoa baino handiagoa bada, ehuneko 4ko tasa gehigarria aplikatuko zaio.”

Lau. 59. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“59. artikulua. Kuota efektiboa eta gutxieneko tributazioa

1. Kuota likidoari titulu honetako III. kapituluaren aurreikusitako kenkarien zenbatekoa kenduta ateratzen den zenbatekoa hartuko da kuota efektibotzat.

2. Kuota efektiboa ezin izango da inola ere negatiboa izan.

3. Zerga-oinarri positiboak lortzen dituzten zergadunen kuota efektiboa zehazteko kuota likidoaren gaineko kenkariak aplikatzeak, salbu eta foru-arau honetako 62-64, 64 bis, 65, 66 ter eta 66 quater artikuluetan aipatzen diren kenkariak, ezin du kuota efektiboa zerga-oinarriaren zenbatekoaren ehuneko 19 baino txikiagoa izan, oro har. Foru arau honen 56. artikulua 1. apartatuaren c) letrak aipatzen diren entitateen kasuan, portzentasjea ehuneko 13koa izango da.

Hala ere, aipatutako kenkariak aplikatzeagatik kuota likidoa murrizteak ezin du ekarri kuota efektiboa honako kasu hauetan adierazitako ehunekoa baino txikiagoa izatea:

a) Enpresa txiki edo mikroenpresentzat, beren zerga-oinarriaren ehuneko 15.

b) Foru arau honen 56. artikulua 3. apartatuan ezarritako karga-tasan ordaintzen dituzten entitateen kasuan, zerga-oinarriaren ehuneko 11,75.

c) Foru arau honen 56. artikulua 6. apartatuan ezarritako karga-tasan ordaintzen dituzten entitateen kasuan, zerga-oinarriaren ehuneko 20,25.

4. Foru-arau honen 56. artikuluko 1. apartatuaren a) letran ezarritako karga-tasan tributatzen duten entitateen kasuan, aurreko apartatuaren lehen paragrafoan adierazitako ehuneko orokorra ehuneko 17 izango da, baldin eta, kontratatutako langileak izanik, langile mugagabeen batez besteko kopuruari eusten badio aurreko ekitaldiaren aldean, edo foru-arau honen 61. artikulutik 65. artikulura ezarritako kenkariak sor ditzakeen inbertsioren bat egiten badu zergaldi horretan.

Entitate horiek ehuneko 15 aplikatuko dute bi inguruabar hauetan:

a) Kontratatutako langileak izatea, aurreko ekitaldiaren aldean langile mugagabeen batez besteko plantillari eustea eta, gainera, zergaldian foru-arau honen 61.etik 65.era bitarteko artikuluetako kenkariak sor ditzakeen inbertsioren bat egitea.

b) Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, lan-kontratuko langile mugagabeen batez bestekoa handitzea.

5. Gainerako kasuetan, erakundeak, kontratatuak izanik, lan-plantillako batez besteko plantilla mugagabea mantentzen edo handitzen badu aurreko ekitaldiko plantillaren aldean, aurreko 3. paragrafoan ezarritako ehunekoak honako hauek izango dira:

a) Ehuneko 11, aipatutako apartatuaren lehen paragrafoan ezarritako azken kasurako.

b) Ehuneko 13, ehuneko 9,75 eta ehuneko 18,25, hurrenez hurren, aipatutako apartatuaren bigarren paragrafoa a), b) eta c) letretan adierazitako kasuetarako.

6. Aurreko hiru apartatuetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko zergak foru arau honetako 56. artikuluko 2., 4. eta 5. paragrafoetan ezarritako karga-tasen arabera ordaintzen dituzten erakundeei."

13. artikulua. Kooperatiben araubide fiskala

Aldaketa hauek egiten dira Kooperatiben zerga araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1az gero hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 10 bis artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"10 bis artikulua. Etxebizitzen kooperatibak

Etxebizitzen kooperatibak babes berezikotzat joko dira, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Kooperatibaren helburua izan behar da bazkideen esku jartzea etxebizitza merkeak, bai jabetza adjudikatuta, bai erabilera eta gozamina lagata.

Horri dagokionez, etxebizitzak merketzat joko dira baldin eta gehienez 120 metro koadroko azalera badute eta, gainera, haien eraikuntza kostua (egotzi beharreko lurzoruaen kostua gehituta) ez bada Euskal Autonomia Erkidegoko babes publikoko etxebizitzetarako ezarritako gehieneko prezioa 1,8 koefizienteaz biderkatzearen emaitzako kopurua baino gehiago.

Hala ere, etxebizitzok ez diote babespekoak izateari utziko horiekin batera negoziotarako lokalak, zerbitzu osagarriak eta urbanizazio obrak egiten direnean, baldin eta babes publikoko etxebizitzari buruzko legerian ezarritako mugen barruan egiten badira, nahiz eta kooperatibek eraikitako etxebizitzak babes ofizialekoak ez izan.

b) Kooperatibak eraikitzen dituen etxebizitzak bazkideen ohiko etxebizitzak izan behar dira. Bazkideek horren berri eman behar dute nahitaez etxebizitzaren adjudikazioari edo haren erabileraren eta gozamenaren lagapenari buruzko dokumentuan. Hala ere, bazkideak ez diren hirugarrenei besterendu ahal izango dizkiete sustatutako etxebizitzak, baldin eta hori beharrezkoa bada kooperatiba-sustapena finantzatzeko, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 117. artikuluan 2. apartatua arautzen den bezala.

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 87. artikuluan 8. apartatua zehazten duena.

c) Bazkideei etxebizitza jabetzan ematea helburutzat duten etxebizitzen kooperatiben kasuan, kooperatiba ezin da desegin eraikitako etxebizitzak adjudikatzen edo eskualdatzen diren egunetik bost urte igaro baino lehen, honako kasu honetan izan ezik: bermealdiak eta entitate sustatzaile gisa ezkatututako akatsei erantzuteko aurreikusitako legezko epealdiak, adjudikazioaren edo eskualdatzearen egunetik zenbait beharrezkoak, edo erakunde publikoekin sinatutako estatutuek edo lankidetzak hitzarmenek epealdi luzeagoa ezartzen dutenean, epealdi hori hartuko da kontuan.

d) Kooperatibaren estatutuetan beren beregi adierazi behar da etxebizitzaren jabetza adjudikatzen zaien edo haren edo erabilera eta gozamena lagatzen zaizkien bazkide guztiek zergen legerian ohiko etxebizitzat jotzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituztela, eta berariaz ezarri behar da betebeharrak hori betetzen ez duten bazkideek kalte ordaina eman beharko diotela kooperatibari, etxebizitzaren balioaren ehuneko 10 gutxienez.

e) Bazkideei etxebizitza baten erabilera eta gozamena lagatzea helburutzat duten etxebizitzen kooperatiben kasuan, kooperatibak ezin die eman bazkideei ostalaritzako berezko zerbitzu osagarriak (jatetxe zerbitzua, garbiketara, arropa ikuzketa...), ez eta gizarte arretako laguntzarik ez osasun zerbitzurik ere.

2. Babes bereziko kooperatibatza jotzeko funtsezko baldintza (etxebizitza ohiko bizilekua izatea) betetzen denez egiaztatzeko eskubidearen preskripzio epealdia Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 87. artikuluan 8. apartatua aipatzen den hiru urteko aldia amaitutakoan hasiko da zenbatzen."

Bi. Aldatu egiten da 14. bis artikuluan hirugarren paragrafoa, eta artikulua horri laugarren paragrafo bat erantsen zaio. Hona testuak:

"Zerga-oinarri orokorrari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 55. artikuluan aipatzen den zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa aplikatu ahal izango zaio, konpentsazio horren aurreko zerga-oinarri orokor positiboaren ehuneko 50eko mugarekin.

Aurreko paragrafoan aipatzen den muga ez zaie aplikatuko tamaina txikiko kooperatibei, baldin eta Foru arau horren 13. artikuluan Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 55. artikuluan 1. paragrafoak aipatzen dituen mikroenpresa edo enpresa txikitza hartzeko aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte."

Hiru. 43. artikuluan 2. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

"2. Sozietateen gaineko zergan, herri onurako kooperatibei eta ekimen sozialeko kooperatibei aplikatuko zaien zerga araubidea Irabazikoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 7-17 bitarteko artikuluetan ezarritakoa izango da. Halaber, pertsona juridikoek egiten dituzten dohaintza eta ekarpenei eta herri onurako kooperatiben eta gizarte ekimeneko kooperatiben alde egiten diren enpresa arloko lankidetzako hitzarmenei foru arau horren III. tituluan II. kapituluaren artikulua eta, gainera, 28. artikulua aplikatuko zaizkie.

Halaber, Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarrii buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren III. tituluaren II. kapituluko bidezko artikulua eta 28. artikulua aplikatuko zaizkie pertsona fisikoek herri onurako kooperatibei eta gizarte ekimeneko kooperatibei egiten dizkieten dohaintzei eta ekarpenei.”

14. artikulua. Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren 22. artikulua 7. apartatuaren b) letra aldatzen da eta honela geratzen da (foru arau hau indarrean sartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak):

“b) Dohaintza emaileak zuzendaritza lanak egin izan baditu, eskualdaketaren unetik bi urte igarotakoan lan horiek egiteari eta haien ordainsariak jasotzeari uztea.

Horretarako, sozietatearen administrazio kontseiluko kidea izate hutsa ez da zuzendaritza funtzioen barruan sartuko.”

VI. TITULUA BESTE NEURRI BATZUK

15. artikulua. Arabako Zergen Foru Arau Orokorra

Lehenengoa. Gehitu egiten zaio bigarren paragrafo bat Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriari; ondorioak izango ditu 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera. Hona hemen edukia:

“Aurreko paragrafoaren azken esaldian xedatutakoa gorabehera, “informazioa eman behar duen plataforma eragile” orok “informazioa eman behar den saltzaile” bakoitza informatu beharko du dagokion estatuari transferitutako “kontraprestazioaz,” 2011/16/EB Zuzentarauaren eta xedapen honetan adierazitako nazioarteko erabakien arabera.”

Bigarrena. Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 1. artikuluari 3. apartatua gehitzen zaio (2023ko abenduaren 30etik aurrera sortuko ditu ondorioak). Hona testua:

“3. Elkarren laguntzari buruzko araudia baliatuz Zerga Administrazioak beste estatu batzuei edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuei ematen dien laguntzak araudi horretan ezartzen diren mugak edukiko ditu.

Hain zuzen ere, Batasuneko estatuen arteko laguntza dela eta, Zerga Administrazioak honako hauek ezartzen diren betebeharrak eta materialak edukiko ditu: 2010/24/EB Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2010eko martxoaren 16koa, zerga, eskubide eta beste neurri batzuei dagozkien kredituen kobrantzaren arloko elkarrekiko laguntzari buruzkoa; 2011/16/EB Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2011ko otsailaren 15ekoa, fiskalitatearen arloko administrazioen arteko lankidetzari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentaraua aldatzen duena.”

16. artikulua. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

Lehenengoa.

Bat. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 9. artikulua 43. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da (aldaketak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“43. Biziraupenaren ziozko prestazioen ondoriozko etekinak, kapital edo erreskate moduan emandakoak, 65 urtetik gorako zergadunek jasotakoak, baldin eta lortutako zenbatekoa beren aldeko biziarteko errenta aseguratua eratzeko erabiltzen bada prestazioa jasotzen denetik sei hilabete igaro baino lehen, araudian ezartzen denarekin bat etorritik. Biziarteko errenta aseguruak eratzeko bideratu daitekeen gahieneko zenbatekoa 240.000,00 eurokoa da.

Berrinbertitutako zenbatekoa jasotako prestazioa baino gutxiago bada, berrinbertitutako zenbatekoari dagokion lortutako kapital higigarriaren etekinen zati proportzionala soilik geratuko da zergapetu gabe.

Zergadunak foru arau honen 42. artikularen f) letran xedatzen dena aplikatzen badu, artikulua honen lehen paragrafoan aipatzen den gehieneko kopurua 42. artikularen f) letraren lehen paragrafoan ezartzen denarekin batera aplikatuko da.

Eratutako biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak (osorik edo zati bat) aurreratuz gero, kapital higigarriaren etekina zergapetuko da.”

Bi. Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Hogeita bederatzigarrena. Gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako ekarpen eta kontribuzioengatiko murrizketa-mugak.

Gizarte-aurreikuspeneko sistemei ekarpenak eta kontribuzioak egiteko mugak aplikatzeari dagokionez, Foru arau honen 71. artikuluko 1. paragrafoko b) letran aipatzen den mugaren barruan zenbatuko dira honako hauek: Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 67. artikularen 1. paragrafoaren a) letran aurreikusitako pentsio-plan sektorialetarako ekarpenak, beren jardueraren ondorioz plan horiei atxikitzen zaizkien beren konturako langileek edo autonomoek egiten badituzte; Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 67. artikularen 1. paragrafoaren c) letran aurreikusitako norberaren konturako langileen edo autonomoen enpleguko pentsio-plan sinplifikatuertarako ekarpenak; Norberaren konturako langileek edo autonomoek enpleguko aurreikuspen-planek egiten dizkieten ekarpenak. Hori indarrean egongo da soil-soilik 2024rako.”

Bigarrena. Aldaketa hauek egiten dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 26. artikularen 4. apartatuaren a) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“a) Etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arrunta erabiltzen bada, atxikipena kentzen zaienean duten balio fiskal garbia.”

Bi. 27. artikularen 5. arauaren bigarren eta hirugarren apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“Bi. Zergadunak frogatzen badu jardueraren berezko ezaugarriak direla eta ibilgailua oso garrantzitsua dela sarrerak lortzeko eta horretarako erabili ohi duela, gastu horien ehuneko 50 kendu ahal izango du ibilgailuko, muga hauekin:

a) 3.000,00 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehunekoa 30.000,00 euroko kopuruari aplikatzearen emaitzako zenbatekoaren ehuneko 50, hura baino gutxiago bada eta amortizazioa ondare elementu baten errentamenduagatik, lagapenagatik edo balio galeragatik aplikatu bada.

b) Ibilgailuaren eskuraketa prezioa 30.000,00 euro baino gehiago izanez gero, kopuru horren zati proportzionala ibilgailuaren eskuraketak eragindako finantza gastuekiko.

c) 3.600,00 euro urtean ibilgailuaren erabileraren inguruko gainerako kontzeptu guztiengatik.

Hiru. Zergadunak modu sinesgarrian egiaztatzen badu ibilgailua soil-soilik jarduera ekonomikoari lotuta dagoela, kengarriak izango dira gastu horiek, muga hauekin:

a) Errentamendu, lagapen edo balio galera gisa:

Zenbateko hauetatik txikiena: 6.000,00 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehunekoa bider 30.000,00 euro eginda ateratzen den zenbatekoa, hura baino gutxiago bada eta ondare elementua amortizatzen bada.

Ibilgailua bateriadun ibilgailu elektrikoa (BEV), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa (REEV), erregai-piladun ibilgailu elektrikoa (FCV) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoa (FCHV) izanez gero, aurrean adierazitakoa gabe zenbateko hauetatik txikiena aplikatuko da: 8.000,00 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehunekoa bider 40.000,00 euro eginda ateratzen den zenbatekoa, hura baino gutxiago bada eta ondare elementua amortizatzen bada.

b) Ibilgailuaren eskuraketaren ondoriozko finantza gastuengatik:

Ibilgailuaren prezioa 30.000,00 eurotik gorakoa denean, zenbateko horri dagokion zati proportzionala.

Ibilgailua bateriadun ibilgailu elektrikoa (BEV), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa (REEV), erregai-piladun ibilgailu elektrikoa (FCV) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoa (FCHV) izanez gero, aurrean adierazitakoa gabe honako zenbateko hau aplikatuko da: ibilgailuaren prezioa 40.000,00 eurotik gorakoa denean, zenbateko horri dagokion zati proportzionala.

c) 7.200,00 euro erabileraren inguruko gaineko kontzeptu guztiengatik.

Zergadunak ez badu urteko aldi batean ibilgailu hori erabiltzen, erabili duen denboraren arabera kalkulatu dira goiko zenbakietan aipaturiko mugak.”

Hiru. 42. artikuluari bi paragrafo gehitzen zaizkio amaieran; hona edukia:

“Artikulu honen b), c) eta e) eta letretan xedatzen dena honako ondare-irabaziei ere aplikatuko zaie: aurretik momenturen batean zergadunaren ohiko etxebizitzat hartu den familia-etxebizitzaren eskualdatzeak agerrarazitako ondare irabaziei, baldin eta zergadunak etxebizitza horretan bizitzeari utzi badio erabaki judizial baten ondorioz, ezkontideak banantzeko edo izateko bikotea azkentzeko prozedura batean.

Araudian baldintza gehiago ezarri ahal izango dira aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko.”

Lau. Hamargarren xedapen gehigarriaren 6. eta 7. apartatuak aldatzen dira eta honela gertzen dira:

“6. Espainian egoitza duten pertsonen eta entitateen eta atzerrian egoitza duten pertsonen edo entitateen Espainian dituzten establezimendu iraunkorrek, baldin eta hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak gordetzeko, kriptoaktiboak mantentzeko, biltegitratzeko eta transferitzeko zerbitzuak ematen badituzte, eta zerbitzu hori nagusiki edo beste jarduera bati lotuta ematen badute, Zerga Administrazioari eman beharko diote mantentzen dituzten kriptoaktibo guztiei buruzko informazioa, betiere erregelamenduan ezartzen denarekin bat etorritik. Hornidura horretan, kriptoaktibo bakoitzeko saldoei buruzko informazioa jasoko da, eta, behar denean, legezko erabilerako diruari buruzkoa, bai eta saldo horien titularren edo onuradunen identifikazioa ere.

7. Espainian egoitza duten pertsonen eta entitateen eta atzerrian egoitza duten pertsonen edo entitateen Espainian dituzten establezimendu iraunkorrek kriptoaktiboen eta legezko erabilerako diruaren arteko edo kriptoaktiboen arteko truke-zerbitzuak ematen badituzte, edo edozelan eragiketa horiek egiteko bitartekari gisa jarduten badute, edo inoren izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen badituzte, kriptoaktiboak mantentzeko, biltzeko eta transferitzeko, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaizkio arauetan ezarritakoaren arabera, kriptoaktiboak eskuratzeko, eskualdatzeko, trukatzeko eta transferitzeko eragiketak, baita kriptoaktibo horietan egindako kobrantzak eta ordainketak ere, haietan esku hartzen badute edo bitartekari gisa jarduten badute. Horretarako, esku hartzen duten subjektuen zerrenda aurkeztu beharko da, hauexek adierazita: helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia, kriptoaktiboen mota eta kopurua, eta eragiketaren prezioa eta data.

Aurreko betebeharrak bera edukiko dute Espainian egoitza duten pertsonen eta entitateen eta atzerrian egoitza duten pertsonen edo entitateen Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkorrek, kriptoa aktibo berrien hasierako eskaintzak egiten badituzte eta beste kriptoa aktibo batzuen edo legezko erabilerako diruaren truke ematen badituzte.”

Bost. Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, hogeita hamabigarrena; hona testua:

“Hogeita hamabigarrena. Ohiko etxebizitzan eguzki energia elektrikoaren hornikuntzarako inbertsioak egiteagatik aplikatu daitezkeen kenkariaren araubide iragankorra.

1. Errentariak, azpierrenerriak eta gozamedunek inbertsioak egiten badituzte 2025eko zergaldian eta, foru arau honen 93 bis artikuluan xedatzen denaren arabera (2024ko abenduaren 31n indarrean dagoen testua aintzat hartuta) inbertsio horiek kengarriak baziren eguzki energia elektrikoa ohiko etxebizitzan hornitzeko egindako inbertsioengatik, artikulua horretan ezartzen denaren arabera aplikatu ahal izango dute kenkaria.

2. Zergadunek kenkarirako eskubidea sortu badute 93 bis artikuluan arabera (2024ko abenduaren 31n indarrean dagoen testua) eta kenkaria ezin izan badute aplikatu kuota osoa nahikoa izan ez delako, aplikatzeko falta dena hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango dute, artikulua horren 2024ko abenduaren 31ko indarreko testuan ezartzen denaren arabera.

3. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera ez dira eskatuko foru arau honen 93 bis artikuluan 5. apartatuan ezartzen diren baldintzak (2024ko abenduaren 31n indarrean dagoen testua).”

Sei. Berrogeita bigarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona hemen edukia:

“Berrogeita bigarrena. Ohiko etxebizitza alokatzeagatik kenkariaren kuota osoa nahikoa ez izateagatik ordaintzea.

1. 2025-2029ko zergaldietan, biak barne, foru-arau honen 102. artikuluan xedatutakoaren arabera autolikidazioa egiteko betebeharrak ez izan arren autolikidazioa aurkezten duten zergadunek, eta horren ondoriozko kuota osoa edo egindako behin-behineko likidazioa nahikoa ez bada Zergaren Foru Arauaren 86. artikuluan aurreikusitako ohiko etxebizitza alokatzeagatik kenkari osoa edo haren zati bat aplikatzeko, aplikatu gabeko zenbatekoaren ordainketarako eskubidea izango dute.

Ordaindutako kopurua, hala badagokio, foru arau honetako 94 bis artikuluan aipatzen ordaindu gabeko kenkarietatik deskontatuko da.

2. Erregelamendu bidez arautuko dira itzulketa hori egiteko prozedura eta baldintzak, ordaintzeko eskubidea dagoen kasuetan.”

Hirugarrena. Aldatu egiten da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 28. artikuluan 1. apartatuaren b) letra, eta honela idatzita geratzen da (aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan sortuko ditu ondorioak):

“b) Aurreko letran aipatutako diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea kalkulatu da, eta ateratzen den zenbatekoari ondoren adierazten diren kopuruei dagokien ehunekoak kenduko zaio, amortizazioengatik, narriadura-galerengatik eta justifikatzen zailak diren gastuengatik:

– Aurreko urtean diru-sarreraren eta aurreko letran aipatutako gastuen arteko aldea 35.000,00 eurotik gorakoa ez bada. Halakoetan, portzentajea ehuneko 20 izango da.

– Aurreko urtean diru-sarreraren eta aurreko letran aipatutako gastuen arteko aldea 35.000,00 eurotik gorakoa eta 85.000,00 eurotik beherakoa bada. Halakoetan, portzentajea ehuneko 15 izango da.

– Aurreko urtean diru-sarreraren eta aurreko letran aipatutako gastuen arteko aldea 85.000,00 eurotik gorakoa bada. Halakoetan, portzentajea ehuneko 10 izango da.”

Laugarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 18. artikuluari bi letra l) eta m) gehitzen zaizkio (2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

“l) Ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak, mintegiak eta antzekoak ematearen ondoriozko errendimenduak.

Dena dela, l) letra honetan aipatzen diren etekinak lortzeko beharrezkoa denean produkzio-bitartekoak eta giza baliabideak, edo bietako bat, norberaren kontura antolatzea, ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko, jarduera ekonomikoen etekintzat hartuko dira.

m) Literatura-, arte- edo zientzia-lanak egitearen ondoriozko errendimenduak, betiere horiek ustiatzeko eskubidea lagatzen bada. Dena dela, m) letra honetan aipatzen diren etekinak lortzeko beharrezkoa denean produkzio-bitartekoak eta giza baliabideak, edo bietako bat, norberaren kontura antolatzea, ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko, jarduera ekonomikoen etekintzat hartuko dira.”

17. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 14. artikulua 2. paragrafoaren b) letraren ondoren paragrafo bat gehitzen da; hona:

“Aurreko paragrafoan ezartzen dena ez da aplikatuko entitateak jarduerari utzi eta inaktibo geratzen denean.”

Bi. 14. artikulua 2. apartatuari e) letra gehitzen zaio; hona:

“e) Jarduera ekonomikoei lotutako elementuak izango dira diruzaintzako kopuruak eta beste finantza aktibo batzuk, aurreko b) letrakoak ez beste batzuk, apartatu honen a) letran aipatzen diren partaidetzen ondoriozkoak, bai eta jarduera ekonomikoei lotutako beste ondare elementu batzuk eskualdatuta lortutakoak ere, baldin eta beren zenbatekoa hurrengo hiru urteetan enpresa proiektuetan berrinbertitzen bada, zuzenean zein zeharka.

Aurreko paragrafoan ezartzen denaren ondorioetarako, zenbatekoa zeharka enpresa proiektu batean berrinbertitutzat joko da entitate baten partaidetza eskuratzen denean, baldin eta partaidetzen eskualdaketen ondoriozko dibidenduak eta errentak zerga oinarrian ez sartzeko foru arau honen 33. artikulua 1. apartatua eta 34. artikulua 1. apartatua ezarritako baldintzak betetzen badira.

Zenbatekoa berrinbertitzen ez bada (hiru urtetan, oro har, edo Administrazioak baimendutako epealdi luzatuan), diruzaintzako kopurua edo bestelako finantza aktiboa jarduera ekonomikoei lotu gabeko ondare elementutzat joko da sortu denetik eta, behar izanez gero, ordutik aurrerako zergadunaren egoera erregularizatuko da araudian ezartzen den bezala.

e) letra honetan ezartzen dena aplikatu behar denean, Zerga Administrazioari eman beharko zaio araudian ezartzen den informazioa. Zergaren aitopenearekin batera aurkeztu beharko da.”

Bi bis. 31. artikulua 1. apartatuaren b) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Sozietateen gaineko zerga eta zerga osagarria kontabilizatzetik eratorritakoak. Kontabilizazio horretatik eratorritakoak ez dira sarreratzat hartuko.”

Hiru. 31. artikulua 3. apartatuaren a) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“a) Automobilak eta horien atoiak, ziklomotorrak eta motozikletak erosi, errentatu, konpondu, mantendu edo balioa galtzearekin zerikusia duten gastuen eta ibilgailu horien erabilerari lotutako beste guztien ehuneko 50 kendu ahal izango da. Gehieneko muga izango da, batetik,

errentamendua, lagapena edo balio galera dela eta, 3.000,00 euro, edo zergadunak erabilitako amortizazio ehunekoa bider 30.000,00 euro eginda ateratzen den zenbatekoaren ehuneko 50, hura baino gutxiago bada eta ondare elementua errentamenduagatik, lagapenagatik edo balio galeragatik aplikatu bada amortizatzen bada; eta bestetik, ibilgailuaren erabilerarekin zerikusia duten gainerako kontzeptuengatik, 3.600,00 euro, kasu guztietan ibilgailu bakoitzeko eta urteko. Aipatutako ibilgailuen erosketarekin zerikusia duten finantza gastuen kenkaria, ibilgailuaren prezioa 30.000,00 eurotik gorakoa denean, zenbateko horri dagokion zati proportzionalaren ehuneko 50 izango da gehienez.

Pertsona batek aldi berean erabiltzen baditu letra honetan aipatzen diren ibilgailuetako bat baino gehiago, adierazitako mugak pertsonako eta urteko aplikatuko dira, erabiltzen dituen ibilgailuen kopurua gorabehera.

Ibilgailua ez bada urte osoan erabiltzen, letra honetan kenkarietara ezarritako gehieneko mugak ibilgailua erabili den denboraren proportzioan kalkulatu dira.

Baina letra honetan aipatutako gastu osoak izango dira kengarriak eta kenkariaren gehieneko muga izango da, batetik, errentamendua, lagapena edo balio galera dela eta, 6.000,00 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehunekoa bider 30.000,00 euro eginda ateratzen den zenbatekoa, hura baino gutxiago bada eta ondare elementua errentamenduagatik, lagapenagatik edo balio galeragatik amortizatzen bada; eta bestetik, ibilgailuaren erabilerarekin zerikusia duten gainerako kontzeptuengatik, 7.200,00 euro, baldin eta, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 115. artikulua 3. apartatua adierazitako moduan, goian azaldutako mugen barruan gastu osoa kengarritzat jotzea aukeratzen bada, ibilgailua erabiltzen duen pertsonari gauzako ordainsaria egotzi zaiolako, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauaren 60. artikuluan ezarritako arauetara jarraituz, edo zergadunak modu sinesgarrian frogatu duelako ibilgailua jarduera ekonomiko bat egiteko baino ez dela erabiltzen.

Aurreko paragrafoan azaldu diren kasuetan, eskuratzearen ondoriozko finantza gastuengatik aplika daitezkeen kenkariak muga hau edukiko du, ibilgailuaren prezioa 30.000,00 eurotik gorakoa denean: 30.000,00 eurori ibilgailuaren erosketaren prezioan dagokion zati proportzionala.

Ibilgailua bateriadun ibilgailu elektrikoa (BEV), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa (REEV), erregai-piladun ibilgailu elektrikoa (FCV) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoa (FCHV) izanez gero, aurrean adierazitakoa ez da aplikatuko eta letra honetako gastu guztiak kengarriak izango dira, baldin eta zergadunak modu sinesgarria frogatu ahal badu ibilgailua jarduera ekonomiko bat egiteko baino ez dela erabili, muga zenbateko hauetatik txikiena dela: 8.000,00 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehunekoa bider 40.000,00 euro eginda ateratzen den zenbatekoa, hura baino gutxiago bada eta ondare elementua errentamenduagatik, lagapenagatik edo balio galeragatik amortizatzen bada; eta bestetik, ibilgailuaren erabilerarekin zerikusia duten gainerako kontzeptuengatik, 7.200,00 euro, kasu guztietan ibilgailu bakoitzeko eta urteko.

Aurreko paragrafoan azaldu diren kasuetan, eskuratzearen ondoriozko finantza gastuengatik aplika daitezkeen kenkariak muga hau edukiko du, ibilgailuaren prezioa 40.000,00 eurotik gorakoa denean: 40.000,00 eurori ibilgailuaren erosketaren prezioan dagokion zati proportzionala."

Lau. 33. artikulua 3. apartatua f) letra gehitzen zaio; hona:

"f) Partaidetzen dibidenduak eta mozkinak, zergadunek haiek jaso ondoko hiru urteetan jasotzen dituztenak, baldin eta partaidetza foru arau honen VI. tituluaren VII. kapituluaren ezartzen den araubide bereziaren arauak aplikatuz balioetsi bada eta arau horien arabera ekarpena egin denean errentak ez badira sartu behar izan ez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarrian, ez eta ekarpena egin duenarentzat establezimendu iraunkorrik gabe ari denaren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga oinarrian ere, dibidenduen zergapetze bikoitza ezabatzeko eskubidea edukiz gero.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena ez da aplikatuko jasotako dibidenduen zenbatekoa enpresa-proiektu batean berrinbertitzen denean, foru arau honen 14. artikularen 2. apartatuaren e) letran eta hori garatzen duen araudian ezartzen den bezala, edo, bestela, bazkideen artean banatzen denean.”

Bost. 34. artikularen 4. apartatuan d) letra gehitzen da; hona:

“d) Eskualdatutako partaidetza foru arau honen VI. tituluaren VII. kapituluaren ezartzen den araubide bereziaren arauak aplikatuz balioetsi bada eta arau horien arabera, are aurreko eskualdaketa batean ere, partaidetzaren ondoriozko errentak ez badira sartu behar izan ez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarrian, ez eta ekarpena egin duenarentzat es-tablezimendu iraunkorrik gabe ari denaren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga oinarrian ere. Kasu horretan, zerga entitate eskuratzailerak ekarpena egin duenetik hiru urte igaro baino lehen eskualdatzen badu partaidetza, entitate eskuratzailerak jasotako partaidetzaren balio fiskalaren eta eskuraketa gertatu denean merkatuan eduki duen balioaren arteko diferentzia positiboa zerga oinarria sartu beharko da, honako kasu hauetan izan ezik:

i) frogatzen bada ekarpena egin duenak entitate onuradunean eduki duen partaidetza eskualdatu duela hiru urteko aldi; edo

ii) entitate eskuratzailerak eskualdaketa ondoriozko zenbatekoa enpresa-proiektu batean berrinbertitzen badu, foru arau honen 14. artikularen 2. apartatuaren e) letran eta hori garatzen duen araudian ezartzen den bezala.”

Sei. 61 bis artikularen bigarren, hirugarren eta laugarren apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“Bi. Honako hau izango da gehieneko kenkari oinarria aurreko apartatuan adierazitako bizikleta bakoitzagatik:

- Pedalei eragiteko motor elektrikoaren laguntza duten bizikletak: 3.000,00 euro.
- Bestelako hiriko bizikletak: 500,00 euro.

Hiru. Kenkari honen urteko guztirako oinarria ezin da izan 15.000,00 euro baino gehiago foru arau honen 13. artikuluan xedatzen denaren arabera mikroenpresa edo enpresa txikia diren enpresentzat, ez 20.000,00 euro baino gehiago gainerako entitateentzat.

Foru arau honen 67. artikuluan xedatzen dena gorabehera, kenkariaren oinarritik kenkari eskubidea sortzen duten inbertsioak finantzatzeko jasotzen diren dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da.

Lau. Artikulu honetan ezartzen den kenkaria baliatzeko, egindako inbertsioak ibilgetuaren barruan kontabilizatu beharko dira, gainerako ondare elementuetatik bereizita eta hura identifikatzeko aukera ematen duen epigrafean.”

18. artikulua. Ondarearen gaineko zerga

Ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 6. artikularen laugarren apartatua aldatzen da eta honela geratzen da (aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“Lau. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, aktibo bat ezinbestekoa da jarduera ekonomiko baterako, baldin eta aktiboa jarduera horri lotuta badago Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 26. artikuluan ezarritakoaren arabera; salbuespena: artikulu horren 1. apartatuaren c) letrako azken tartekian aipatzen diren aktiboak (hauek ere jarduera ekonomiko bati lotuta egon daitezke).

Foru arau horren 27. artikulua 5. eta 6. erregeletan aipatutako aktiboak eta abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 31. artikulua 3. apartatua aipatutakoak lotuzat joko dira, manu horien arabera aktiboen gastuak kengarritzat jo daitezkeen proportzio berean.

Jarduera ekonomikoa egiteko beharrezkoak ez diren aktibotzat ez dira hartuko entitateak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekotik gorako eskuratze prezioa dutenak, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoetatik badatoz, muga honekin: urte horretan eta aurreko hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoa. Paragrafo honetan xedatzen denaren arabera beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatzen ez diren elementuak ezin dira izan aktibo osoaren ehuneko 75 baino gehiago.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena ez da aplikatuko entitateak jarduerari utzi eta inaktibo geratzen denean.

Apartatu honen hirugarren paragrafoan xedatzen denaren ondorioetarako, jarduera ekonomikoen ondoriozko mozkinen parekotzat hartuko dira Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 14. artikulua 2. apartatua a) letraren azken bi gidoietan aipatzen diren baloreen dibidenduak, bai eta partaidetza horien eskualdatzeetan lortutako gainbalioak ere, baldin eta entitate partaidetuak lortutako diru sarreraren ehuneko 80, gutxienez, jarduera ekonomikoen bidez sortzen badira.”

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Toki erakundeek 2025eko irailaren 30era arteko epealdia edukiko dute araudia foru honetan ezarritakora moldatzeko ordenantza fiskaletan egin beharreko aldaketak egiteko.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Laneko etekin jakin batzuen atxikipen-mota.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 18. artikulua m) eta l) letretan aipatzen diren etekinetarako berariazko atxikipen-portzentaje bat erregelamendu bidez garatzen ez den bitartean, aplikatu beharreko atxikipena ehuneko 15ekoa izango da ordaindutako diru-sarrera osoen gainean.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetuta geratzen dira foru arau honetan xedatzen denaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko mailako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, ondorioak sortzen hasteko egun jakina esleituta duten arauak izan ezik.

Hala ere:

– 3. artikulua laugarren apartatua xedatzen denak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera eskuratzen diren ohiko etxebizitzetarako sortuko ditu ondorioak.

– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren 86. artikulua 8. apartatu berrian (3. artikulua zortzigarren apartatua) xedatzen denak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sinatzen edo luzatzen diren errentamendu kontratuetarako sortuko ditu ondorioak.

– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren 87. artikulua 10. apartatu berrian (3. artikulua hamabigarren apartatua) xedatzen denak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren ohiko etxebizitzaren eskuratzeetarako eta horrekin parekatutako kasuetarako (87. artikulua 5. apartatua) sortuko ditu ondorioak.

– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 9. artikulua lehen, bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren, seigarren, zazpigarren, hamabigarren eta hamazazpigarren apartatuetan eta hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarrian – artikulua horren hamahirugarren apartatua sartu da – xedatzen denak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

– Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 59. artikulua 3. paragrafoan eta hurrengoetan xedatutakoak, 12. artikulua laugarren paragrafoan jasotakoak, ondorioak izango ditu 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan.

– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren 76. artikulua 1. apartatua xedatzen denak, 11. artikulua laugarren apartatua jasotakoak, ondorioak izango ditu 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera.

– Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 56. artikulua 2. apartatua xedatutakoak, 12. artikulua hirugarren apartatua jasotakoak, ondorioak izango ditu 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 9a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA